

# GOIERRITARRA

Udako ale berezia! 40 orrialde

124 p.k. Ordizia --Goierriko euskaldunon aldizkaria-- debaldeko aldizkaria

GOIERRITARRA ALDIZKARIA.

16./17. zenbakia.

91ko Uda



Udako erromeri bateko jazz-ban-a

- ❖ ELKARRIZKETA H.B.-KO RAMON AMUNDARAINekin: «GOIERRI PROGRAMA» AURRERA
- ❖ ITSASONDOKO XIMONA IBARGUREN JOSTUNARENAK
- ❖ GOIERRIKO HERRIARI, ORDIZIAKO GAZTETXEAREN ERREKETA DELA ETA
- ❖ «GOIERRITARRA» INKESTAGAI: EA HOBETZEN DUGUN ALDIZKARIA!
- ❖ ORMAZITEGIKOA, IRAGANETIK GAURKORAINOKO ZUBIA
- ❖ KOLABORAZIOEN ARTEAN: Juan Mari Olano, Mikel Aramendi, Alberto Aldasoro, Nerea Azurmendi, Karnele Aierbe, eta beste
- ❖ BADUGU «ZERRAILA»REN SEXU INFORMAZIO BEHARRIK
- ❖ BUS ETA TREN ORDUTEGIAK, INTERESEKO TFNAK, AGENDAN, TXUTXUMUTXU ETA BERRILABURRAK, INKESTAN ETXEBIZITZEN ARAZOA, KARTAK, TXISTEAK, KOMIKIA, NON JAN, LIBURU-KRITIKA, «SEI SEME-ALABA GOIERRIKO», BITXIKERIAK ETA ABAR.
- ❖ UDA ONA PASA ETA URRIRARTE!

PERIODIKOAK



publizitatea

H  
E  
R  
R  
I  
G  
I  
N  
T  
Z  
A  
N

LAN KIDE AURREZKIA (Ψ) EUSKADIKO KUTXA

190  
Sukurtsal

164  
Kooperatiba  
Elkartu

20.000  
Lanpostua

230.000  
Milioiko Aurrezkia

Euskadiko  
Kutxa



CAJA LABORAL POPULAR  
LAN KIDE AURREZKIA



**LAGUN ARO**  
SEGUROS ASEGURUAK

Nafarroa Etorbidea, 27 — Telefonoa: 88 62 50 / 88 31 00  
B E A S A I N

## GOIERRITARRA HILABETEKARIA

*Bertako txalaparta eta albistaria*

*Isiltzen ez den zintzarria*

**16./17. zenbakia. 91.eko Uztaila-Abuztua-Iraila**

**Debaldeko alea. Tirada: 1.700 ale. 1.500 hartzaile.**

**Argitaratzailea:** "Goierritarrak"

Kultur Elkarte. Dorre- etxea, behea (Correos azpia).

Tfna: 889612.

124 posta kutxa. Ordizia.

Publizitatearen eta dirulaguntzen

sarrerak: GK 01\* 1.427.276-8

Publizitatea egin nahi duenarentzat

jakingarri: orrialde batek 40.000 pe-

zeta balio du. Horren arabera modu-

loen prezioak: 20.000 orriardiak.

4.000, 6.000, 8.000, 12.000, e.a.-eko

publizitate moduloak dituzu.

**2. etapaldirako orain arteko**

**Udal-Herri laguntzaileak:** Olabe-

rria, Itsasondo, Altxaga, Arama, Ez-

kio-Itsaso, Gabiria, Idiazabal, Ikaz-

tegieta, Legorreta., Gaintza, Zaldi-

bia, Ordizia eta Beasaingoak (Azken

hiruren zai, onartu eta agindu bait

digute).

**Ukatu:** Lazkaok, Segura, (iaz beza-  
la, agindu eta gero) Mutiloa eta Ze-  
gamakoek

— Ormaiztegi, Ataun, eta Zerain-  
goan erantzun-zai oraindik.

**Koordinatzailea:** Jon Mikel Arano

**Laguntzailea:** Xabier Narbarte.

**Aholkulariak:** Tere Irastortza, eta  
Andoni Sarriegi.

**Ale honetan kolaboratu dute:** An-  
doni Sarriegi, Maite Erauskin, Ra-  
mon Ugalde, Mikel Leunda, Mikel  
Albisu, J.K. Kerejeta eta M.K. Ur-  
teaga, Iñaki Larrañaga, J.I. Iturrioz,  
Pakea Garmendia, Edurne Garmen-  
dia, Aitor Larrañaga, Xabi Olano,  
Mikel Aramendi, Josi Barandiaran,  
Patxi Zubizarreta, Jexux Lete «Iba-  
ertz» EHE, Ordiziako Gaztetxea, eta  
Kultur-etxea, publizitate emaila eta  
berriemaileak.

**Gure eskerrik beroenak:** Goierrri-  
ko Udal laguntzaileei. «Argia» eta  
«Euskaldunon Egunkaria»ri Era  
batera edo bestera lagundu nahi ligu-  
ketenei (arazo txiki asko ditugu, dei  
egiguzu, zure aportaziotxo behar  
dugu), gauzak errazten dizkiguzue-  
noi eta nola edo hala parte hartzeko  
irrikitan zaudeteno.

**Fotokonposizioa, maketazioa  
eta inprimaketa:** ANTZA.

**Lege Gordailua:** SS 926/89

**GOIERRITARRA aldizkaria**  
irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat



**«Goierritarrak»  
Kultur Elkarte**

## Edito

# Goierriko Herriari Ordiziako Gaztetxea dela eta

Hamabost egun eskasetan, apirilaren  
20tik maiatzak 5a bitarte, Ordiziako  
Gaztetxea erasotua izan zen lau alditan  
kanpoko jendeen partetik, lapurretak,  
txikiketak eta azken errematerako erre-  
keta sufritu zituela(rik).

Aurreko aldizkariaren erredakzioa  
itxita zegoen ja. Gure eskuan zegoen  
guztia egin genuen. Hurrengoan informa-  
tuko genuen.

Hasi gara bada peskizan. Ahaleginak  
eginagatik guk, Ertzantza mutu. Ordizia-  
ko Gazte Asanbladakoek, gertakizunen  
eta gauzen egoera nahikoa garbi edukia-  
gatik, ezin izan ziguten ezer askorik adie-  
razi, goizegi zen balorazio orokorrak  
egiteko. Geroztikakoa jakina izan behar-  
ko luke. Paskin, propaganda eta prentsa-  
ren bidez zabaldu da.

Aitzakika ari gara: beranduegi da  
orain. Komunikatu, hitzaspertu, mobili-  
zazio eta ekintza andana bat izan ditugu  
tartean. Gaztetxearen errehabilitaziorako  
oinarriak jarriko ote diren, Goierriko  
Gazteen Etxea ere badena zutik jartzea  
lortuko ote duen lehenagoko gazteriak eta  
gazteri berriak... Dena dago ikuskizun,  
baina badirudi baietz. "Agostinho Txi-  
rringa-Memoriala" lekuko. Nahiz lokalik  
ez eduki. Lokalez gain izpiritua ere behar  
baita.

Beste kontu bat da, izpiriturik baden,  
nork helduko dion droga-arazoaren ze-  
zen-adarre: S.O.S.

Besterik ez, oraingoz, gure partetik.  
Heurekin gaudela adierazi bakarrik gaz-  
teei. Eta beste behin horrelakorikan gerta  
ez dadin, ahaleginak egin beharko ditu-  
gula. Apostu polita denontzat, bai eta

Udal-kargu berrientzat. Gau luzea, gau  
latza. Ea tunelaren bukaera garen be-  
rehala.

GOIERRITARRA





|      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |      |
|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| 5.15 | 5.24 | 5.27 | 5.30 | 5.33 | 5.36 | 5.41 | 5.45 | 5.49 | 5.51 | 5.54 | 5.58 | 6.00 | 6.04 | 6.10 | 6.13 | 6.20 | 6.23 | 6.26 | 6.29 | 6.36 | 6.45 | 6.50 |
|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|

a. Lanegunetan, larunbatetan ezik  
d. Lanegunetan.  
e. Abuztuaren lehenengotik 31era ezik  
f. Abuztuko larunbatetan bakarrik.

[illegible]

a. Lanegunetan, larunbatetan ez  
 d. Lanegunetan.  
 e. Abuztuaren lehenengotik 31era ezik.  
 f. Abuztuko larunbatetan bakarrik.



## Lana

--35etik 40 urtera bitarteko emakume bat behar da tabernako sukalderako. 882906.

--Orduka lan egiteko emakumea prest. 886432.

--Uztailean lan egingo luke ikasle honek. Edozein etxetan. 884722.

--Orduka edo haurrak zaintzen lan egingo lukeen neska prest dago. 886617.

--Neska euskalduna behar da egunean ordu batzutan lan egiteko eskolan dabilen haur bat zainduz. 7etatik 9etara deitu. 887578.

--19 urtetako neska orduka lan egiteko pronto dago. Edozein lanetan. 888181.

--Emakume gazte bat lanerako prest, bulego, aurrezki kutxa edo bankuetxeetarako garbiketarako. Goizetan. 889052.

## Salmentak

--Egoera onean dagoen Seat Panda SS-P bat salgai. Salneurria: 200.000 pta. Iluntzeko 8etatik aurrera deitu zenbaki honetara: 291780.

--Bizikleta estatikoa salgai. Berria. 885726.

--R-19 "Chamade" bat salgai. 117420.

--R-5 bat salgai, bost abiadura eta aluminiozko llantak. SS- 2915-P. 882000 tfna.

--Neska-txirringa berria salgai. 886626.

--"Seat Ritmo 75 clx" bat salgai. ITV pasa berria du. Aluminiozko llantak eta kristal beltzak. Egoera oso onean. Salneurri egokian. 881835. Gauetan deitu.

--Berogailua salgai -Gaponesa-. Ia berria. 884083.

--"Gaweau" markako pianoa salgai. Salneurri onean. 884509.

## Etxebizitzak

--Etxebizitza eskaintzen dugu errentan Beasainen. Santa Maria kalean, 25-2. esk. 3 logela, sukaldea, bainugela, egongela eta Hall. 883556. Arratseko 3etatik 6etara deitu.

--Estreinu gabe dagoen etxebizitza salgai Beasainen. Garajeduna. Salneurri egokia. 888725.

--Etxebizitza salgai Ordizian, Altamira kalean. Jantzia edo gabe. Salneurri onean. 888331.

--Etxebizitza salgai, ganbara eta garajearekin. Ordizian, Goierri kalean. 12.500.000 pta. 887357.

--Etxebizitza salgai Ordizian. Ganbara eta garajearekin. Oso eguzkitsua. Arana kalea. 881836.

--Etxebizitza nahi dut errentan, prezio egokian. Ordizia eta Zaldibia inguruan. 887732. Eguerdiko 12etatik gaueko 10etara deitu.

## Agurrak

"Ager daitezela politikillo arlote, belarri kilometrikodun eta gabiroi hazkazaldunak". Napoleonek Waterloo.

## EKITALDIAK

Lazkaoko Maizpideko XVII. Udako Euskal Ikastaroak. Kultur Zikloa:

--Uztaila (azken eguna), 18a, osteguna: Oskorreren Jaialdia, Azeria Zineman, arratsaldeko 10etan.

--Abuztuak 20, asteartea: Koldo Ameztory ipuin-kontalaria, "Gaua luze izanen bait da bihar bilakatzen", Maizpideko Zineman, arratsaldeko 9etan.

--Abuztuak 22, osteguna: Maixa eta Itziar trikitilariak Maizpiden hasi eta Gerriko tabernan amaitzeko. Arratsaldeko 8etan.

## Beasaingo euskara-ikasleei laguntzak

1990.eko Irailetik 1991ko Abuztura bitartean (biak barne), edozein mailatako (Euskalduntze-Alfabetatzeko) Euskara-Ikasketak Euskaltegiren batean (Udal-Euskaltegietan salbu) egin dituzten edo egiten ari diren 16 urtez goitiko ikasle beasaingar guztiek, diru-laguntza eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte Beasaingo Udaletxeko Euskara-Zerbitzuan aurtengo azaroaren 30era bitartean. IRALE, Udal-Euskaltegi, Administrazioak antolatutako Ikastaro edo gisako laguntzarik badu-

te, ez dute diru-laguntza hau jasotzerik izango.

Laguntzak, ondorengoak izango dira: --% 50a langabetu- txartela dakartenentzat. --% 33,33a gainerko guztientzat.

Eskatzailak, klase orduen % 80etara joan izana frogatu beharko du ibili den Euskaltegiko agiriaren bidez eta Beasainen erroldatua egon. Laguntza jasotzeko, ondorengo agiriak aurkeztu behar dira: --Matrikula-ordainagiriaren fotokopia. --Euskaltegiko Agiria, klase-orduak, asistentzi orduak eta ikasketa maila adieraziz. --NANaren fotokopia. --Langabetu txartelaren fotokopia, egoera horretan daudenek. --Diruetxeren bateko kontu korrante zenbakia.

## MENDIZALEAK

Ordizia: Irailak: 8, Amezketa-Azkarate-Arriba. 15, Urkizu-Ernio-Alkiza. 22, Saioa-Baztan. 29, Besaide.

Idiazabal: Uztailak: 14, Lizarraga-Berriain. 26-27-28, Hetxo- Atxer-Bisaurin. Abuztuak: 16-17-18, Formigal-Balaitus-Anaet. Irailak: 22, Mezkitritz-Adi.

## BEASAIN-ORDIZIAKO GOARDIAKO FARMAZIAK


**Uztailak:** 12: Arriola; 13,14: Urbizu; 15: Urbizu; 16: Atorrasagasti; 17: Azpilikueta; 18: Jauregi; 19: Larnaga; 20,21: Larnaga; 22: Kuesta; 23: Arriola; 24: Urbizu; 25: Atorrasagasti; 26: Azpilikueta; 27,28: Azpilikueta; 29: Jauregi; 30: Larnaga; 31: Kuesta. **Abuztuak:** 1: Arriola; 2: Urbizu; 3,4: Arriola; 5: Atorrasagasti; 6: Azpilikueta; 7: Jauregi; 8: Larnaga; 9: Kuesta; 10,11: Kuesta; 12: Arriola; 13: Urbizu; 14: Atorrasagasti; 15: Azpilikueta; 16: Jauregi; 17,18: Atorrasagasti; 19: Larnaga; 20: Kuesta; 21: Arriola; 22: Urbizu; 23: Atorrasagasti; 24,25: Urbizu; 26: Azpilikueta; 27: Jauregi; 28: Larnaga; 29: Kuesta; 30: Arriola; 31: Jauregi.

- Karta Zerbitzua
- Lan menuak

## RUBIORENA JATETXEA

Zaldizurreta, 7 Telf.: 88 57 60  
20200 BEASAIN

ZURE IRAGARKIA HEMENTXE  
BALEGO ZEU IZANGO ZINATEKE  
DUEN ERAGINA IKUSTEN





## RAIMON MUSIKAL

JAMO PROFESIONALA  
BANATZAILE OFIZIALA  
Korda eta Haize musikagailuak

ZALDIZURETA, z/g.  
Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN



## LEIAR

KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen  
Kristal esarrazteza - Beirategiak - Orma-ispiluak

ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfno: 88 60 70

BEASAIN



auto-eskola **ORDIZIA**

LA UNION Y EL FENIX ASEGURAK

Padre Urdaneta, 10  
Tfnoa: 88 72 76

ORDIZIA

## GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02  
20200 B E A S A I N




AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:  
Lazkao: 88 72 99  
Beasain: 88 18 96  
GIPUZKOA



## MUJKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94  
ORDIZIA



**EGUZKI**

Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9  
Tfnoa: 88 94 82  
20200 B E A S A I N

- Zerbitzu zuzenak furgonetarekin
- Zerbitzu nazionalak
- Zerbitzu internazionalak

**gaur**  
express

mensajeros-mezulariak

BEASAIN 88 89 38  
88 83 17

## EROSKI KAFETEGIA

Pintxo hotz eta beroak  
Eguneroko bazkariak

Tfnoa: 88 83 31

ORDIZIA

## GARAJE "LAZKAO"



**Renault**  
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak  
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO



## AUTOBUS ORDUTEGIAK

PESA GARRAIOAK. BEASAIN, IDIAZABAL Norabidea. GELTOKIAK: Altamira, Arboleda, Torresol, Malkasko.

### ASTEGUNAK:

5,30-7-7,30-8,40- -10-10,40-11,30-12,30-13  
13,30-14,30-15,30-16,30-17-17,30-18  
-18,30-19-19,30-20,30-21,30-22,30.

### LARUNBATAK:

5,30-7,30-9-10-10,30-11,30-13,30-14,30-15,30-  
16,30-17,30-18,30-19,30-20,30-21,  
30-22,30.

### IGANDE ETA JAI-EGUNAK:

5,30-13-17-18-19-21-22.

SARASOLA AUTOBUSAK. LAZ-  
KAO, ATAUN Norabidea. GELTOKIAK: Malkasko, asteazkenetan Torresolen.

### ASTEGUNAK:

7,50-9,20-9,50-11,05-12,05-13,05-14,30-15,10-  
15,45-16,50-17,30-18,30-19,05-20,  
05-21,20.

### ASTEAZKENAK:

7,35-8,40-9,10-10,10-11-11,30-12,30-13  
Trsol.

### IGANDE ETA JAI-EGUNAK:

16,55-17,25-18,30-19,05-20,05-21,10-21,40.

ETXABE AUTOBUSAK. ZALDI-  
BIA Norabidea. GELTOKIAK: Arbo-  
leda, Renault.

### ASTEGUNAK:

7,45-10-12,15-13-13,45-15,30-16,10-17,10-  
18,10.

### ASTEAZKENAK:

7,45-8,50-9,15-10-10,30-11-11,30-12,15-13-  
13,45-15,30-16,10-17,10-18,10-19,10-20,10.

### LARUNBATAK:

10-12,30-18,10-20.

### IGANDE ETA JAI-EGUNAK:

16,45-18,10-20,10.

ZEGAMA AUTOBUSAK. SEGU-  
RA, ZEGAMA Norabidea. GELTOKIAK: Torresol.

### ASTEAZKENETAN BAKARRIK:

7,30-9-10,30-12-19.

ZUBELDIA AUTOBUSAK. ALE-  
GIA, AMEZKETA Norabidea. GEL-  
TOKIAK: Arboleda.

ASTEAZKENETAN BAKARRIK,  
goizez eta ordu jakinik gabe.

## Intereseko Telefonoak

### Orokorrak

|                          |                 |
|--------------------------|-----------------|
| Zumarragako Eritetxea    | 721614          |
| Donostiako Erresidentzia | 453800          |
| Gurutze Gorria           | 272222          |
| DYA                      | 464622          |
| SOS Deiak                | 088             |
| Eguraldi informazioa     | 094             |
| Errepideen egoera        | 288888          |
| Ertzantza (Beasain)      | 887350          |
| Suhiltzaileak (Ordizia)  | 881362          |
| Renfe (Beasain)          | 880853          |
| Sarasola Garraioak       | 880710          |
| Pesa Garraioak           | 880668          |
| Estellesa                | 452949          |
| Itxaropenaren tfna       | 458005          |
| HIES-SIDARI buruzko tfna | 282666          |
| Toxikologia inform       | 912620420       |
| Alkoholiko Anonimoak     | 276618          |
| Goierri Lanbide Eskola   | 880062          |
| Maizpide Euskaltegia     | 889231          |
| Goiztiri AEK             | 889174 / 889340 |
| Segura Irratia           | 801041 / 801341 |
| Arlote Irratia           | 888093          |

### Arama

|                   |        |
|-------------------|--------|
| Udaletxea         | 888953 |
| Telefono publikoa | 880739 |

### Ataun

|                           |        |
|---------------------------|--------|
| Anbulategia (S. Martin)   | 881025 |
| Udaletxea                 | 881011 |
| Anbulategia (S. Gregorio) | 881251 |

### Beasain

|                     |        |
|---------------------|--------|
| Anbulategia         | 880759 |
| Alkartasuna Lizetza | 887191 |
| Hotel Urteaga       | 880850 |
| Larrialdiak         | 880967 |
| INB                 | 880753 |
| Loinazpe Ikastetxea | 882644 |
| Udaletxea           | 885900 |
| Udal Euskaltegia    | 889094 |
| Udaltzaingoa        | 881355 |
| Zaharren Egoitza    | 884804 |
| Taxiak              | 880367 |

### Ezkio-Itxaso

|                            |        |
|----------------------------|--------|
| Udaletxea                  | 721303 |
| Telefono publikoa (Ezkio)  | 720267 |
| Telefono publikoa (Itxaso) | 880315 |
| Gasolindegia               | 721717 |

### Gabiria

|                   |        |
|-------------------|--------|
| Udaletxea         | 880734 |
| Telefono publikoa | 881384 |

### Gaintza

|                |        |
|----------------|--------|
| Udaletxea      | 889564 |
| Tfno. publikoa | 880274 |

### Idiazabal

|                  |        |
|------------------|--------|
| Anbulategia      | 801173 |
| Udaletxea        | 801064 |
| Eskola publikoak | 801726 |

### Ikaztegieta

|           |        |
|-----------|--------|
| Udaletxea | 653329 |
|-----------|--------|

### Itsasondo

|             |        |
|-------------|--------|
| Udaletxea   | 881170 |
| Eskolak     | 887704 |
| Medikuetxea | 881359 |

### Lazkao

|                          |        |
|--------------------------|--------|
| Udaletxea                | 886408 |
| Anbulategia              | 882632 |
| S. Prudentzio Ikastetxea | 882630 |
| S. Benito Ikastola       | 880800 |

### Legorreta

|                  |        |
|------------------|--------|
| Udaletxea        | 806225 |
| Eskolak          | 806014 |
| Izarra ostaturia | 806044 |
| Taxia            | 806170 |

### Mutiloa


|                |        |
|----------------|--------|
| Tfno. publikoa | 801166 |
|----------------|--------|

### Olaberria

|                 |        |
|-----------------|--------|
| Udaletxea       | 889193 |
| Eskolak         | 881232 |
| Castillo Hotela | 882011 |
| Tfno. publikoa  | 881111 |

### Ordizia

|                          |        |
|--------------------------|--------|
| Udaletxea                | 885850 |
| Anbulategia              | 880967 |
| Eskolak                  | 882780 |
| Kontsumitzaileen Bulegoa | 881642 |
| Kultur Etxea             | 881280 |
| Gasztetxea               | 888092 |
| Oianguren BIN            | 880862 |
| Suhiltzaileak            | 881362 |
| Udaltzaingoa             | 884005 |
| Taxiak                   | 881486 |
| Zaharren Egoitza         | 888377 |



### Ormaiztegui

|             |        |
|-------------|--------|
| Udaletxea   | 882660 |
| Anbulategia | 888432 |

### Segura

|                           |        |
|---------------------------|--------|
| Udaletxea                 | 801006 |
| Anbulategia               | 801919 |
| Eskolak                   | 801776 |
| Igerilekuak               | 801775 |
| Aingeru Zaind. Aterpetxea | 801010 |
| Hospital                  | 801008 |
| Segura Irratia            | 801041 |
| Taxi                      | 801170 |

### Zaldibia

|                  |        |
|------------------|--------|
| Udaletxea        | 880357 |
| Anbulategia      | 880027 |
| Eskolak          | 884521 |
| Etxabe Autobusak | 884105 |

### Zegama

|             |        |
|-------------|--------|
| Udaletxea   | 801115 |
| Anbulategia | 801351 |
| Eskolak     | 800042 |

### Zerain

|                   |        |
|-------------------|--------|
| Udaletxea         | 801724 |
| Medikua           | 801136 |
| Telefono Publikoa | 801183 |





## GOIERRITARRA inkestagai: egokia eta bidezko aldizkaria



**Edurne Garmendia, 20 urte, ordiziarra, idazkaria, EHEkoa eta irakurle fidela.**

Zer irudituko zait, ba? Euskal aldizkari bat ateratzea bailada mailan oso ondo dagoela eta gustora nagoela GOIERRITARRAekin. Igoal, hilean behin baino hobe litzateke 15ean behin argitaratzea. Bariatuxeagoa, arinxagoa, ez dakit, lehenago ere bikain dago, euskaraz irakurtzea jendeari kostatzen zaio, baina, dohainik denez, irakurtzen da. Irakurterreza da, gainera. Inkestaren gaia oso interesantea ikusten dut, baina guk beti esaten duguna, pertsona bat edo besteren gainean egon ordez, hobe litzateke aldizkariaren inguruan talderen bat edo mogituko balitz. Agian euskaltzale gehiago, irakurle, kolaboratzaile e.a. mogituko bagina... Penagarria litzateke datorren kurtsoan makal ibiltzea edo ez izatea GOIERRITARRA. Goierriko Udaltehen dirulaguntzak eta bestelako guztiak merezi ditu.




**Kepa Korta, 28 urte, ordiziarra, EHuko Logika eta Zientziaren Filosofia saileko idazkaria.**

Aldizkari lokalek paper garrantzitsua betetzen dute euskarazko prensan. GOIERRITARRA ere du bat dugu eta Institutioek hau bezalako herri-ekimenekin eduki behar dute begirunerik. Ez ditut ale guztiak irakurri, baina garbi dago garrantzitsua dela Goierriko jendea informatzeko garaian. Komunikabide multinazionalak dute pisurik latzen, CNN-ek bere erara informatzen du mundua.

E.H.-an izugarritzko presioa jasaten dugu, Donostian bertan hamar telebista kate har daitezke: bat bakarria euskaraz, ETB1a, bere anuntzio, subtitulu erdaldun eta bestez. Euskal komunikabideen eragina txikiegia da, baiha indartu eta potentziatu behar ditugu ahalik eta gehien. Informazio lokalekin aurre egin erdal handiei. Beasaingo berri zuzenak behar ditugu, ez TVEren optikatik emanak, objektiboak, lagun batek luzatuko lizkigutkeen bezala. Mikrokomunikazioa beraz, manipulatzailen eskuetatik kanpo. Bertatik bertara, eta euskara hutsez izatea gauza handia da. Gainerantz, zer esan behar dut dirulaguntzarik eman ez duen Udal bati buruz? Bada, uste dut Goierriko herrian herriko izakera eta ezagugarrien zertzeladak atera direla GOIERRITARRAn.

**"Txiribiton", bilbotarra jaiotzez, bihotzez debatarra, bizi Donostian, Vitoria abizenek eta Lazkaon euskara ikasi. Urte "pilo bat", matematikoa eta batez ere pailazo profesioanala (nola klase eman pailazo izan gabe?)**


Orain dela 3-4 urte hasi nintzen euskarazko klaseak hartzen Maizpiden eta errepikatu egin dut gerora. Ezagutzen ditut GOIERRITARRAren azken aleak, logelan dauzkat eta iruditzen zait zoragarria dela hilean behin ateratzea horrelako aldizkari bat eta, gainera, onena da dohain dela. Ulertzeko prolema ez dut lehenetik ere, hitzegiteko maila hartzera eta EGA ateratzera etorria naiz Lazkaora. Habe, Egunkaria eta GOIERRITARRA irakurtzen ditut, Argiak maila handia du niretzat. Debako aldizkaria, adibidez, urtean hirutan ateratzen da, udan, udaberrian eta neguan: oso dotorea eta koloretsua da, baina pagatu egin behar da. Hilean behin egitea, herri baterako ez baino bailadarako eta dohain ateratzea izugarritzkoa da.



**Josinazio Barandiaran, 31 urte, ordiziarra, mezulari-erreparteroa.**

Asko gustatzen zait GOIERRITARRA, baina boteprontoan irakurtzen dut, nahiz eta etxean jasotzen dudana, euskaraz irakurtzea dextente kostatzen zaidalako. Hala ere, euskarazko aldizkarietan irakurtzen dudana bakarrenetakoa da eta gustoenekoa ere bai.

Gainontzean, egileok ezagutzen zaituztet eta roilo jatorria dela uste dut, 16. zenbakia atera eta oraindik gauza asko esateko bait dago oraindik. Gustokoa dut baita ere bere linea, konektatzen du kalekoarekin eta gazte eta jendeartean dagoenarekin. Uste dut datorren kurtsoan aurrera AEK-n euskaraz gehiago alfabetatu beharko naizela. Seguruen.



**Xabier Olano, 42 urte, Segurako andoaindarra, irakasle eta Ordiziako PAT-COP-eko zuzendari.**

Ondo da. Nik uste dut Goierriko eskualdean horrelako zerbait beharrezkoa zela. Nahiko popularra, txukuna, gai aldetik herrikoia eta jende askori interesatzen zaizkion gauzak argitaratzen ditu.



Proba pasatu du orain arte, baina uste dut gai gehiagoetara zabaldu behar duela GOIERRITARRA; noski, hori segun eta ze jenderekin kontatzen den, kolaboratzaileak, e.a. Eta irekia da zentzu horretan; beharbada, ezagutuko bagenu hobeto nork eta nola egiten duzuen... Irakaskuntzakook ere ez dugu gehiegi konektatu baina harremanetan hasiz gero, ikastol mundura espezialdurik egon ez arren, horretakoak ere aportatu litezke.

Baliagarria da hizkuntza eta kultura aldetik goierriar herri eta jendeentzat eta nire iritzia da diru-laguntza gehiago beharko litzukeela eta herrietako jende gazteek parte gehiago hartu beharko lukeela, bere iritzia, problematika, asmoak e.a. emanaz.



**Jon Imanol Iturrioz, 28 urte ordiziarra, kazetaria.**

GOIERRITARRA zer iruitzen zaiten? Ba, asteko, bearrezkoa. Erri bakoitze bere zilborrai beida eoten da jeneralen, eta ondo dau jakittea ondoko erritan ze gertatzen dan, ze gertau izan dan eta ze artista dauden. Inguru ontan eztau au ezen bailara guztiko notizik emango don errebitsaik, ta daukaguna euskaraz dau, zorionez.

Errebistea jendea askok jasotzen do etxen, 1.500 laun izango die dauneko. Zenbatek leitzen don? Auskalo! Ta jendek gustoa artzen don? Ona izango litza-ke oi jakittea, norberai ze iruitzen zaion esanez GOIERRITARRA eitten dan to- kia eskribitzea, edo errebistan ze gai azal- tzea naiko luken esatea, askotan eitten donantzat ezpaita erreza izaten gaiakin asmatzea, jendea zekin kezkauda daun jakittea. Bein batek ala esaten zian, eus- karan inguruko kontuk --euskera, litera- tura, literatura, bertsok...-- geitxo azal- tzen diela, ta beak gustoago leitzen dittula

fotografitan ateatzen dienak esandakok. Nik neuk elkarriketak gustoa leitzen di- ttut, amairugarren aleko denborapasak ere politteik zien, eta agenda ere erabili bear izan det bein edo bein.

Eta publizitatea azaltzen danen ere po- zik jartzen naiz. Publizitatea izatea seña- le ona da. Baña oi ezta naikoa, diru- sarrera andiagok bear dittu GOIERRITARRA. Ez aztu doan banatzen dala, ta gastuk gora ein dutela.



**Iñaki Larrañaga, soziologoa. Itsasondoko erretorea. Heldua.**

GOIERRITARRA aldizkariaren es- perientzia, orohar, baikorra dela pentsa- tzen dut. Bi puntu azpimarratuko nituzke. Lehenbizikoa: aldizkariak Goierriko he- rrien artean betetzen duen lokarri eginki- zuna. Bigarrena: hizkuntzaren, euska- ren, normalizazio aldetik izan duen eta dezakeen eragina.

Lehenbizikoari dagokionean, Goierri- ko eskualdeak, azken 15 urte hauetan, sakabanatze eta barreiatze prozesu bat bizi duenaren susmoa daukat. Herri ba- koitzak, bereari begiratzen dio eta alda- menekoarekin elkar-lanean ekiteari bai- no gehiago, harekin lotzen duenari baino gehiago bere helburu partikularrak lor- tzeari begiratzen dio, bakoitzak bere as- toari arre egitea bilatuz, hori egiteak bes- tea baztertzea badakar ere. GOIERRI- TARRA aldizkariak, herrietako berriak eta historiak gogora ekarri eskualdeko herrien arteko loturak gogora ekartzeko lanari ekin dio. Onerako eta txarrerako elkarrekin loturik gaudela agertzen ari zaigu. Alderdi honetatik, beraz, txalo be- roak merezi ditu.

Bigarrenari dagokionean, hizkuntza- ren, euskararen, normalizazioari dago- kionean alegia, jakina da, hizkuntza batek

zenbat eta gizarteko funtzio gehiago bete, orduan eta normalizaziora gehiago hur- biltzen dela. Goierriko eskualdean ez ze- goen, prentsa idatziaren mailan, euskara hutsean egindako aldizkaririk, eta hori, euskararen aldetik hutsune nabarmen bat zen. Orain GOIERRITARRA aldizka- riari esker, hutsune hori, maila batean bederen, beterik gelditu da. Gainera, bes- talde, euskaraz ezer gutxi irakurtzen duen jendeak euskaraz irakurtzeari beldurra galtzeko ere balio du. Txaloak, beraz, al- derdi honetatik ere.

Eta aldizkari honek txaloak bakarrik merezi al ditu? Ez al du akatsik? Agian, garrantzi gutxiko bakar batzuk, herrieta- ko idazle ezezagunek parte hartzea eta artikulua idaztea, herrietako agenda xehetuegia, e.a. Garrantzitsuen, ordea, bere funtzioa betetzen duela eta hasitako bidetik aurrera egitea duela. Animo, be- raz, eta segi aurrera!



**Pakea Garmendia, 21 urte, lazkaotarra, kazetaria.**

Beti hitz egin izan dugu Goierriko duen harrobi kulturalaz, hemengo ahalmene- taz zuekin, GOIERRITARRAren hasie- ratik. Beti esan izan dugu hori ez dugula gorde behar eta bai, ordea, kanpora atera, jendea konturatu dadin zer dugun bertan, urrutira joan gabe. Hemengo pertsonaiak esaterako, nork ez ditu ezagutzen eta zer esanik badutela ez dira inon azaltzen.

Komeni al da esatea?: GOIERRITA- RRAk hainbeste mamu eta zankadila izan ditu eta nola ez dugu apoiatzen, Lazkaoko Udaletxeak berak nola ez du laguntzen lanean ari dena, gauzak ezagutarazten ari dena?

Neronek mila gauza dauzkat pentsa- turik, sail berriak, laburrak, kronikak, e.a. Ea gauzatzen ditugun.



## Berriak labor

--Joandako apirilaren 30ean ireki zen autobia Legorreta- Itsasondo-Ordiziako zatia. Obra galanta Diputazioak eta enpresariak egin dutena. Itsasondan lagun dugun J. Lete "Ibai-ertz"-ek "D.V."n dioenez, "kamiño berri au egiteak erriari mesede aundia egin badio ere, ez da ala izan lur- jabeentzat. Nekazari eta besteei lurak kendu orain 3-4 urte eta or daude xentimorik kobratu gabe, goian zerua eta beeran zorua dutela. Baserrietako bideekin ere, orrelako zerbait gertatu da. Leengoak autsi bai eta berriak naiko narratsak egin. Ea ba, bein betikoz, errepideetako agintariok, aspaldi ikasi genuena betetzen jakiten duten: "Bakoitzari berea, Jainkoaren legea".

--(Ordizialdearen) Goierriko beheraldearen alde zonalde katras-tofikoaren statusa lortzea erabat ezinezko. Dirulaguntza eskasak edota ez dute apenas izango harri-jasak kaltetuek. Purrustada bat botatzeko modukoa agintari eta tarteko zenbaiti.

--Pintadak aipatzen dira gauza txartat bezala. Eta obra- lanak direla eta kamioiek kaleetatik uzten dituzten lokatz- zotalak? Hortaz aparte: zer dira oinezkoen eskubideak automobilzaleen aldean?

--"CAF deritzan eta Goierriin Fabrika Handia deitzen diogun lan- tegia ahotan dabil azkenaldi honetan, nola ekonomi eta finantza munduan, hala langabeziak zigortuta daukan gure bailara honetan. Badirudi enpresa horrek lantsortea galantak hartu dituela edo gu- txienez partaidetza haundia, bai Metroko lanetan, baita Abiadura Haundiko Trenetan ere, eta hori ondo ateratzen bada, CAFek susta lezake berriro Goierriko enplegua eta baita lanez murrizt dabilzan hainbat enpresa txiki ere, urte batzutan bederen". Lazkaoko "D.V."-ren kronista den Zorionek dioenez, itxaropen onak daude bertarako. Berak esaten badu, zerbait izango da.

--Gas naturala sartzeko lanen lehen faserako baimena eman du jadanik Udalak. Hiru kilometroz luzatuko diren lanok Naturgas S.A. enpresak burutuko ditu eta horretarako lau hilabeteko epea izango du, noiz hasiko diren zehaztu ez badu ere. Udalak ateratako kontuen arabera, zortzi hilabeteko epearen buruan gasa etxeetara sartzeko moduan izango dira. Lanak zatika egingo dira eta bakoitza bukatzen denean, hala nahi duenak eska lezake norbere etxerako gasa. Honakoak izango dira zatiak: ERMtik Igartzako parkeraino, parketik Foru kaleraino, Oriamendik kaleko 17tik Martina Maiz kalearekin gurutzatu arte, handik Arantzazu kale- raino, Oriamendi kale hasieratik Oria pasealekuko 24 zenbaki- raino, eta azkena handik Ordiziaraino.

--Ordizia eta Olaberriako aire poluzioari buruzko txostena kale- ratu du Ordiziako Udalak. Gipuzkoako Diputazioak egin du po- luzioari buruzko ikerketa, Ordiziako Udalaren iniziatibaz. Iker- ketaren helburua alde batetik bi herri hauetako olek lehen aire- ratzen zuten poluzioa zenbaterainokoa zen jakitea, eta bestalde, Aristrain S.A.k ke depuradora jarri ondoren egungo egoera no- lakoa den jakitea dira. 1989 urtetik 1991 urte bitartean egin ziren neurketak. 1990ko irailean Aristrainek ke depuradora martxan jarri zuenetik poluzioa nabarmenki jaitsi dela agertu dute ikerke-



Autobia

tek. Laburbilduz, depuradora jarri zenetik, legeak ezartzen duena baino askoz txikiagoa da Olaberriako poluzioa.

--"Aistrainen poblatua"n 200 bat etxebizitza daude. Bertan bizi dira JMA-go enplegatu eta jubilatuak. 1.500 milioi inbertitu omen ditu Aristrainek, zenbait iturrik diotenez, depuradora martxan jartzen. 200 milioiko mantenu gastua urteko. Izan ere, lehen, egun batzutan 40 tona hauts aireratzen omen zituen. Aldaketa "elegan- tea" izan dela diote bertako bizilagun batzuk. Arnas hartu liteke behinepein, CAF parean ez bezala, batzu-batzutan. Hotsak ez dira isiltzen, ordea. Aiton batek esan zuenez, "Kazetaria? Bada jarri ezazu ondo izurraturik gaudenean hasten direla konpontzen gau- zak!".

--Hauteskunde biamona: bai Lazkaon eta bai Ataunen izan dira istiluak EA J eta HBren artean. Lazkaon Udalaren berri eta legealdiko balorazioak HBk egin ditu. Bere erara eta hortik istilua. Ataungokoez, berriz, "ABC" egunkaria ere arduratu da. Goierriko bihotzeraino, alajaina!

--PSOeko Tolosarako alkategai izan dugu Jauregi legorretar "gorri" ezaguna. Euskararen ez-oso-aldeko bezala azaldu zaigu, euskaldun izan arren.

--Beasaingo alkategai sozialista ez dute ezagutzen Beasainen. Ez badute ezagutzen bere porteria...

--Aisiaren (astialdiaren) kultura bizi omen dugu. Ez da izango porsiakaso kulturak aisia (astialdia, hobe esanda) hartu duela?

--Idiazabalgo Udal-batzak kiroldegia eraikitzea ontzat hartu du. Aurrekontua: 87 milioi inguru.

--Irene Laffite margolari ezaguna Goierriin izan dugu berriro, Beasaingo Aterpe tabernan erakutsi ditu bere pintura-lanak. Garai batean bertan bizi izan zituenak gogoratu eta ez du oroimen txarrik gordetzen goierritarrongandik. Hitz onak baizik ez zituen.



--TX, "disketxe berria" (zigilu berria, alegia) sortu da Ordizian, IZko grabaketa estudioetan tekniko lanetan aritua den Angel Glez. Katarainen eskutik. Hasteko ipuin zinta batzuk kaleratu eta hurrengo lana Potrotaino talde ordiziarraren lehen diskoa produzitzea izango da. Askoz gehiagotarako asmorik ez omen dute.

--14. GOIERRITARRAKO "Txutxumutxuak" direla eta kejak izan ditugu. "Palli" Aseginolaza, "Ancha es Castilla" taldekoa eta artista hutsa dena, artista izango omen da, baina erdal kultura hutsean. Taldearen izen eta erdal letretatik hasita, mesede gutxi egiten bide digu. Gure barkamenak eskatzen ditugu hori aipatzea ahazteagatik.

--Eleuterio Jauregi "Beloki" panderojole zaldibiar ezagunak puntualizazio batzuk egin eta gauzak argi jarri nahi izan ditu Trikitilarien Txapelketako epaimahaia dela eta "Argia"ren "Azkena"n emandako iritzian. Txapelketan bigarren gelditu zenak esan beharrekoak irabazle suertatuz gero ere esango omen zituen eta berearekin geratzen da. Hor dago!

--Berrikiago, "Jo ezak" diskoa kalean jarri dute Imuntzo eta Belokik, Mendizabal eta Narbarteren letrekin besteak beste.

--Beste "Azkena" bat "Argia"n: Ordiziako Kepa Korta (lehengusua) gazteak —EHUko Logika eta Zientziaren Filosofia saileko irakasle eta idazkariak— Carlos Santamaria maisuari egiten dio omenaldi, merezitakoak dituela esanez jaso berri dituen ohoreak. Beste askori ez bezala, haren obra ere ezagutzen duela igartzen zaio.

--Ainhoa Galparsoro atundar gaztetxo eta "enfant terrible" a sari literarioak pilatzen doa han eta hemendik.

--Sariak pilatuz doan bezala Aitor Sarriegi beasaindarra. Hona hemen Bertsolari Gazteen Txapelketako Finalean, "Kontxesiri"ren doinua emanda (oin-errena) kantatu zituenak: "Aizu benetan zara ederra neska / mundu hontan zulako besterik ez da: / guztiz alaia / arazoan aurrean lasaia / ta oso ona, / ni naiz zure zai hemen nagona / bene-benetan / maite zaitut modu guztietan (bis).

Nere ustetan zara guztiz bikaina, / denei hartzen diezu gaina. / Hain zara eder! / Nik neuk esan dizut mila bider / zu bai polita! / Ez zaitetz hasi gaur intzirika, / ni ez naiz lotsa, / beterik zuegatik bihotza" (bis).

--Ordiziako Posta-Etxeko zuzendaria den Honorina A.a Espainiako funtzionariarik legalistena da bere funtzioari dago-kionean.

--Aralarko San Mielen erretaula berez zegokion lekura ekarri dute. Gogoratu orain dela urte batzu lapurtu egin zutela.



Eleuterio Jauregi «Beloki»

A ze flaxa!

**Junior**

**SORTEO PRO-VIAJE DE ESTUDIOS**



SERIE J Nº 021867

**SAN BENITO**  
TEL. 660000  
**LAZKAO**

SELLO CENTRO  
DOCENTE

- 5 Motos **DERBI** Variant
- 5 Cámaras fotográficas Canon Prima
- 10 Pequeños Larousse en color.
- 6 Viajes a SANTO DOMINGO
- 6 Viajes a ITALIA

EL SORTEO SE EFECTUARÁ ANTE NOTARIO EL 15 DE JUNIO DE 1991 EN PALMA DE MALLORCA. LOS NUMEROS PREMIADOS SE EXPONDRÁN EN LAS OFICINAS DE VIAJES BARCELÓ, Y ESTARÁ A SU DISPOSICIÓN UNA COPIA DEL ACTA NOTARIAL.

POR GENTILEZA DE  
**Viajes Barceló**  
**DONATIVO 100 PTAS.**  
CADUCA A LOS 60 DIAS

Lazkaoko San Benito  
Ikastolaren errifa  
erdara hutsean  
bi aldeetatik.  
Gero guk  
jarriko ditugu  
sanbenitoak!



## GOIERRITARRA eta Goierriko txutxumutxuak

14. zenbakia, 91ko Apirila-Maiatza, 9. orrialdea: "Mirariak..." "...Gros auzoan".

Ez ba! Paparazzi "merke"-en estilora jo behar al duzue zuek ere?! Goierriko euskaldunon aldizkari izenpean argitaratu ohi duzuen hau, eta zenbaitzuk behintzat, ale guztiak eskuratu eta gogoz irakurtzeko ohitura hartu dugunez, biziki kritikatu nahiko nuke "Txutxumutxuak" izeneko atal horretan erabiltzen duzuen (ala, akaso, duzun) estilo erraz, merke eta iraingarria. Bai, iraingarria.

Juanito Lasa Goierriko euskaldun zintzo, fin eta zuzena da. Euskara eta orohar Goierri eta Euskadi osoko gizarte eta industriaren alde ikaragarritzko lana egin izan duena. Lanpostu, Ikastola, Udaletxe, eta bere ahalgina eskeini izan duena leku guztietan, albokoan errespetu eta mirespena jaso duen gizona. Beraz, txepelkeria zentzugabe hoiekin etzaitezela zikindu eta kirastu, faborez!

Etzazue, mesedez, horren tarte eta aldizkari polita izan daitekeena, halako sinplekeriez kutsatu, arren. Informazio aldetik zalantzakorra, idazkera aldetik oso interesatua, eta denen artean garrantzitsuen: aldizkariaren kontextuan, baten bat ernegaraztea beste helbururik lortuko ez duen zurrumurru kaka-tzu hoietara jo beharra ere!

Sentitzen dut ba, behin idatziko eta honen presaka eta jenio txarrez egin beharra izatea; baina egia esan, sutan jarri nau tartetxo horrek, eta purrustada bota artean ezin ba lasaitu! Ea hurrengoan bestelakorik luzatzen dizeduan, eta... zer gero! Eutsi goiari!!

**Joxe Felipe Auzmendi (Beasain)**

## Erredakzioaren oharra:

Lehena iristerako erredakzioa itxia genuen. Bigarren oharra jasotzerako aterea genuen 15. zenbakia eta bai eta informazioa ez kontrastatzeagatik gure desenkusak eska-tuak. Hemen doaz halere iritzi hauek ere.

## "Txutxumutxuak"

Erredakzioa eta aholkularitzako jaun-andreok, agur!

Kaleratu den azken alean, Apirila-Maiatzari dagokion 14. zenbakian, eta "Txutxumutxuak" sailean, Beasaingo Eusko Alderdi Jeltzaleko ezagun den Juan Lasa-taz eginiko azalpena, ez dakigu nola kalifikatu.

Uste dugu, era horretako maxioak, egi-erdiekin edozein alderdiko gizon edo emakumeen bizitza pribatua bortxatuz, herriar oro-ren askatasunari zor zaion errespetoa urratuz, kalterik gehien, lehenik, aldizkariari berari egiten diotela. Eta ondorio bezala, bere hel-buru nagusitzat duen euskaldun irakurlekoa murriztu, zatitu eta taldekatu.

Aldizkarian azaltzen diren gaiak eta ikus-puntuak ez zaizkigu askotan gustatzen, alderdi bezala. Baina pluralismo eta kontraste jokoan, ameto egiten dugu. Baina, herriaren alde lana egiten duten pertsonen aurka, gixa horretako tratu eta jasateak, ezin ditugu, bes-terik gabe, aurrera joaten utzi!

Espero dugu, aldizkari horrek eskeiniko diola, Juan Lasari, hurrengo aleko orrietan, zor dion ordainpide juxtu bat.

**E.A.J.-ko Beasaingo U.B.B.**

## Harrapariekin esnai!

Dena egunkari batera bidalitako ohar txo baten kontura izan da. Honela zioen: "Botoa salgai. Prezioa moduan. Helbide honetan: 124 posta kutxa. Otromin".

Nire buruari hiru egunetako epea eman nion. Hala bada, hirugarren egunean, eguerdiko ordu batean hantxe nauzue nire giltza-txoarekin eskumarantz buelta erdi ematen. Ene! Diren harrapari guztiak hementxe behar dute! Batzuk eskuan, gutxi batzu kutxan eta gehienak hegan, lurrean. Lurrekoa k jaso eta txukun-txukun karpetan sartzen ditut etxean begiratzeko asmotan.

Ez dakit zenbat diren guztira, baina nirena hogeitabost harrapari agertu dira. Hain gose izango ote dira? Nire okela hain gustokoa izango ote dute? Zalantzak zalantza, mezu bat igortzen diet heuren kabi epeletara.

"Nire okela gihituk ugari dabil. Moko egiteko izan habil". Eta helbidea.

Alajaina! Han nituen berriro den-denak hiru egunetako epean. Joño, serio jo ziotek! Kontuak kontu han igorri nien, ostera ere, esanaz, alegia, halakoan eta halako datarekin han izango zutela okela mokokada emateko pronto. Hori bai, ez zekiten batak besteren berririk.

Ni ordua baino lehentxeago agertzen naiz preparaioak direla eta. Ea mokoka zenbaiterainoko ziren jakiteko oilategi antzeko zerbait antolatzeke zoria izaten dudan. Xehetasun guztiak ditut kontuan, baina ba-dira bi nabarmenago: denak bat egiteko mo-dua, atzera ez egiteko, alegia, eta epailea.

Ustekabe latza elkar aurrez-aurre ager-tzean. Atzera, berriz, ezin jo. Hago horretan demonio...!, lekutan, osterantzean!

Harrapariak oilo bihurturik. Zenbakiak jaurti eta zenbakiak jaurti. Zeroak, zeroak eta zeroak! Erabat aztoraturik gure oilategia zenbakiak urri gertatu eta hitzetara jo. Hango "gatik" soinua! Garai bateko errosarioaren azken "orapronobis"aren antza hartzen zi-tzaion: letaniak eta misterioak tartean zire-larik: lanpostuak, ingurugiroa, euskara, hez-kuntza, nazioa, herria, mundua, dirua, Jain-koa, askatasuna, familia, maitasuna, osasu-na...

Epaileak oilategia isildu eraziko bazuen ederki asko astindu behar izan zuen eskuko mazoa: sokorra jotzen balebil bezala. Subas-ta amaituta ikusteko desiatzen egon hura ere.

--Eta hik, norengatik? --izugarritzko za-kur-zaunkaz, niregana zuzentzen dela.

--Neurengatik!

Hiru danbateko mahai gainean eta azken hi-tza:

--Hurrengorarte!

**Pello Sarriegi Urretabizkaia  
Goierri Kalea. Barrika-Bizkaia**

## Erreziklatzea osasungarria da

Zaborrek ingurugiroan dituzten arazo la-rriekin amaitzeko derrigorrezkoa da hauek Berrerabiltzea eta Berziklatzea, horrela hon-dakinen kutsadura deuseztatu, lehengaiak aurreratu eta abantaila ekonomiko eta eko-logikoak eragiten direlako.

Guk, aurrena paper-kartoiak, trapuak, beira, gai organikoak eta ez organikoak nor-bere etxean berezi ondoren Berziklatzea pro-posatzen dugu.

Jendeak etxean bereizketa lan hauei ekin-go badie derrigorrezkoa dugu bereizketa-berbideraketa prozesuaren balio ekologikoa ezagutarazteko hiritarrentzako heziketa an-tolatzea. Gainera Berziklaketa hau ere hiri-tarren kontrolpean utzi beharko litzateke, ho-nen etekin ekonomikoak atzera gizarteak behar dituen zerbitzu sozialetara bideratze-ko.

Berziklaketa hau erreztu eta efikazago egiteko Zaborren iturburuetara jo behar da. Hasteko, ohitu behar genuke behar dena baino gehiago ez kontsumitzen eta ez alferrik ezer botatzen; gainera lortu beharrean gaude araudi ekologikoagoa, ontziak berziklagarri izatera behartu, kartoi eta beirazko ontzien aldeko politika bultzatu eta debekatuko di-tuena tetra-brik bezalakoak (plastiko-kartoi eta aluminioz eginda egoteagatik, errekupe-raezinak bait dira eta bere erreketak gas ku-tsatzaileak sortzen bait ditu).

Erakundeei bide honi lotzea exijitu behar zaie, eta horretarako sor daitezela produktu berziklatuen erabilpen eta salmenta esparruak. Oraintxe bertan horretara jartzea de-rrigorrezkoa da!

Ekologista eta hiritar garen partetik, hone-tan diharduten erakundeei (Aldundi-Man-komunitatea) exijitu behar diegu aldatzea Zabor-Erretea eraikitzeke egitasmoa, eta horren orde deitzea lehiaketa batetara bul-tzatzeke arazo guzti hauek aztertuko dituzten taldeak eta, gure herrietako eguneroko erre-alitatetik abiatuz, Berziklaketa lanari helduko diotenak.

Berziklatzea eta lehengaiak erreziklatzea osasungarria da.

**Goierriko Talde Ekologista (Eki)**



## Etxebizitza merkeen eskabidea ahobatezko teilatu eskubidea



**Mikel Aranburu. 18 urte,**  
beasaindarra, ikaslea.  
(Hamarreko haundian,  
"Mutil koskor bat..." doinuaz)

Eraikuntzako arazoetaz dijoazte nere hitzak Ikusirikan gaur egunean sortu zaizkigun emaitzak nahiz eta ugari izanagatik etxegileen eskeintzak nolatan lortu gaur gazte batek aterpe bateko giltzak badakizute zer preziotan dauzkagun etxebizitzak.

Gaurko gazteak nere iritzi gaude momentu latzean hainbeste diru zeinek pilatu horrela epe motzean ta gauza hoiek ez daduzkagu egiterik hotz-hotzean noiz eta nola sartuko gera bakoitza geuon etxean buruko mina sortzen zait neri hori pentsatu hutsean.

Garai onean ez ginen jaio mundura suerte txarrez etxebizitzak oso garesti dauzkagu halaberharrez urte mordo bat igaro behar ondo osaturik zorrez kontu politak hemen sarritan izaten dirade aurrez laguntasunaz askok hitzegin ta laguntzeko inor ez.

Zerbait konpondu beharra dago garbi noa esatera dirurik ezin guk aurreratu hor datorkigu kaltera eskola gehiago beharren gaude

hemen urtetik urtera lan eskasia ere ez dago uzterik alde batera etorkizuna nola daukagun hortik kontuak atera.




**Joan Ramon Gerriko, 22 urte,**  
kaldereroa (eta bertsolaria),  
idiazabalدارra.

Eskubidea bai, denok diagu etxebizitza eskubidea. Nire esperientzia delamedio, esango nuke gazte batek duen jornal batetik ezin dela etxebizitza bat erostera joan. Etxebizitza aurkitzea erraza da, badaude, baina ze prezioak...? Hau konponitzeko bidea, bankuek eta diru-etxeek interesak asko jeistea izango litzateke. Bestela gazte askok eta askok ez dik bere bizitzan berea izango den etxe batean eramaterik izango, gurasoekin bizi beharko dik, askatasun osoa mugatua izango dialarik.

**Joxe Mari Barandiaran. 44 urte,**  
ataundar ordiziartua, metaleko  
langilea eta bertsozalea.

Iruditzen zaidak egoera oso beltz da-goela. Alde batetik gaztearen arazoak

ugariak dituk, langabezia, kontratu fijoarik ez baizik eta denak ebentual... Horrek suposatzen dik gazteek traba asko izatea, etxebizitza bat lortzerakoan. Arrazoi latzenetakoa, etxebizitzaren garestitasuna eta ez zegok noizbait merkeago izango diren itxaropenik. Konponbide bezala, etxebizitza publikoak egitea litzateke, interes bajuagoetan, etxe zaharrak berritzea, pisuen eskuratzea errazagoa izan dadin; beste konponbide bat, gazteen lan- mundua hobetzea, guztiona den teilatu esku-bidea gaztearengana iritsi dadin.



**Iñigo Aldasoro, x urte, ataundarra,**  
intsumiso eta tabernaria.

Argi eta garbi dago etxe bizitzak falta direla. Egia esan lotsagarria da arazo hau. Agintarien espekulazioek agintzen dute. Etxe gutxi daude eta daudenak garesti gainera. Dena den, orain, Hauteskunde Munizipalak direla eta zerbait egingo dela espero dut. Hori da behintzat oraingoz gehien aipatu den gaia. Eta bestela, gazteok, xoxik ez dugunok hobe izango dugu zubiazpira joan edo kanpingak montatzea. Okupa kopon!

- \* ETXEBIZITZAK SALGAI ITSASONDON
- \* SALNEURRI OSO INTERESGARRIAK

### OTEGI

### ERAIKUNTZA OROKORRAK

- \* 100 ETA GEHIAGO M<sup>2</sup>
- \* TXIMENETA, ANTENA PARABOLIKOA,
- BEROGAILU ISTALAKUNTZA EGOTIRUK, E.A.

**Tfnoa: 88 49 36**

**ITSASONDO**



## Presoak borrokan, ni ere bai

**EUSKAL** preso politikoei Espainiako eta Frantziako espetxeetan sakabanatuta bizi duten egoera jasangaitza da. Giza eskubideak zapaldu eta urratu egiten dituzte, beraiek etengabe erabili zigortzeko politikan Justizia Ministeritzak garatu erizpide politikoei eta norabideek.

Azken hilabete honetan, Euskal preso politikoei larrieneko egoeran daude, eta gose grebek areagotu egin dute, exterminio gartzetetan 500 hiritar euskaldunek bizi duten drama. Une hauetan Carabanteleko espetxean muga gabeko gose grebari ekin diote euskal presoek, gartzela horretako Zuzendaritzak eta Espetxezaintzako Epailak uko egin bait die behin eta berriro presoek gutxieneko eskakizunei. Eskakizun horiek funtsean hauek dira: euskal presoak galeria bakar batean biltzea —gaur egun hirutan sakabanatuta daude—, osasuna eta higiea arazoak, laguntza sanitarioa. Euskal preso politikoen eskakizun horiek historikoki dira, izan ere, giltzaperatuak zeldetan pilatzeak, IHESA eta beste gaixotasunak eransteko arriskuak, eguneroko oia dira.

Carabanchel, Herrera, Jerez eta Granadan ikusten da euskal errepresaliatuek beraiei dagozkien eskubideen eskakizunetan amorerik ez emateko duten jokabide tinkoa, egungo legezak onartu eta Espetxe erakundeek behin eta berriz ukatutako eskakizunetan, hain zuzen ere. Jokabide horren osagarria da

eskubide horien sendestea, presoek behin eta berriz berretsi duten printzipio ideologiko eta politikoen, horrela jasoerazi ahal izan bait dugu egun hauetan gure herri eta auzoetan asko banatu den BARRUTIK aldizkarian.

Presio fisiko eta psikikoaren ondorioz sortu zigorren, txantaiaren eta errepresioaren gainetik, 500 hiritar euskaldun horiek egunez

**P**RESEN GUTXIENEN ES-  
KAKIZUNAK FUNTSEAN HAU-  
EK DIRA: EUSKAL PRESOK  
GALERIA BAKAR BATEAN BIL-  
Tzea, OSASUN ARAZOAK, LA-  
GUNTZA SANITARIOA

egun dispertsio politika garaitzen ari dira, alegia, garbi utzi dute alferrikakoa dela errepresioa pertsonen borondatea ezabatzeke. Beraiei erresistentziarekin eta beraiei dagozkien eskubideak errespetatzea eskatzerakoan gure presoek iritzi publikoaren aurrean erakutsi dute, Felipe Gonzalezen Gobernuaren

nortasuna eta izaera nolakoa den, «demokratikoa» eta erabat autoritarioa eta gure Herriarekiko zantzailea izan nahi duen eredu.

Euskal preso politikoei etengabe ari dira borrokan, eta lekuko hori hartu behar dugu kalean gaudenok. Geure egin beraiei eska-kizunak, beraiei giza beharizanak, gartzetetan exterminio harriesen atzean ezkatzen den politika eta giza dimentsioak jabetu. Libre eta gurekin eduki nahi ditugu, geure etorkizuna eraikitzen.

Beraiei senideen eta amnistiaren aldeko mugimenduaren inguruan antolatutako milaka euskaldunek horrela egiten dute egunez egun. Baina beharrezkoa da aurrerago joatea, sektore guztiek euskal solidaritatea bere gain hartzea, eskakizun horiek eta salaketa garraisaia egia bihurtzea, sakabanaketaren diasporatik.

Hori da amnistiaren aldeko batzordeek datozen hilabeteetan Euskalerrira ekarri nahi dugun konpromesua. Giza eskubideen aldeko borroka gizarteko zoko guztietara zabaltzea. Eta asmo hori da, amnistia errepresio bidearen ordezkariarekin batera, Tipi-Ttapa ekitaldi berri bat egitearen helburua; elkartasuneko urratsak amnistia lortzeko bidean.

**JUAN MARI OLANO**

AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEKO KIDEA

## egin

*Sig, sag... Oi!*

Astelehenean, ekainak 17an, egunkaria irakurtzen hasi eta azken orrian «Iruditzen» sailean, argazki nazkagarri bat ikusi nuen. Alemaniar jende bat (putakumeak ez deituegatik) nazien aldeko manifa batean parte hartzen, baina gehien nazkatu ninduen izan zen bertan ageri ziren gehienak kaskamotz itxura zutela, bai itxura, zeren alu hauek ez dira benetako kaskamotzak. Argi dago nazi hauek gure itxura izorratzen ari direla beraiei nazismo nazkagarri horrekin. Argi eduki behar da «Skinhead» mobida Ingalaterra aldean sortu zela, benetako sorburua Hertamerikan izan arren. Hau gehienbat «Punk»aren erorketarekin agertu zen eta honela

beren ideologia edo pentsakera putakume hauek dutenarengandik oso urrun geratzen da. Skin batek faszismo mota guztiak gorroto ditu, bere herria eta kultura edozer gauzen gainetik maite ditu, honen defentsan bere bizia emango lukeelarik (azken hau oso radikal bezala harturik), gehienbat «Ska» eta «Oi!» musikak ditu gogokoen. Berauen indarra langilego zapalduarengatik jaso zuen, horrengatik berauen gorrotoa botere eta jende zapaltzaile eta faszistari. Gerago Alemanian, eta orain batuketarengatik gehiago, nazismoa Skin mobidan infiltratu zen. Adibide gisa esan, hauek agertu aurretik (eta orain ere horrela beharko luke) Skin talde batean beltzak ikusten zirela.

Beraz, gauza bat argi eduki behar duzue: kalean Eusko kaskamotz bat

ikusten duzuenean, ez pentsa nazi alu bat denik, baizik eta gure lurra defendatzeko lapurtu edo preso hartu nahi dutenen aurrean ukabilak erabiltzeko prest dagoen gazte bat dela. Gainera nazismo eta Skin erlazio hori sustatzeko S.H.A.R.P. egitura bat antolatzen ari dela (Skinheads Against Racial Prejudice).

Amaitzeko esan denon artean lortuko dugula gure benetako itxura bir-loratzea jendearen aurrean, nazi gutxi hoiek, gure Euskal Herri paregabe honetatik, besterik ez bada ostikoka bidaliz; bitartean Jo ta ke irabazi arte!! zeren putakume gutxi batzuen burmuin falta ez dugu Euskal benetako kaskamotzak ordainduko. Sig, sag... Oi!.

**Eusko Kaskamotz bat**



## Arriarango urtegia. Beste eraikuntza erraldoi bat

**EUSKAL** Herriko lurraldea gerorako gehiegi hipotekatu gabe gera dadin, garaia da zenbait azpiegitura erraldoi egiteko karrera honi apur bat so egitea. Egiten dena ondo pentsatuta eta gehiago eztabaidatuta egitea. Euskadin ezer preziazurik bada, hori lurraldea da, jende askorentzat azalera txikia baitugu. Amaitzen ari den mende honen ezaugarrietako bat, inguruarekiko astakeria izugarriak egin direla esatea ere ausartuko nintzateke. Honela, lurralde onenak fabrikaz estali dira, horiek gehienetan erreka eta airearen kutsatzaile amorratuak direlarik; baso eta lur zati handiak elektrizitate garraiatzeko tentsio handiko lineaz edo autopistaz zeharkatu dira eta gure mendi eta ingurune guztia txikitzen eta kutsatzen ari gara etengabe.

Guizti hori horrela dela, aspaldian asko aipatzen da lurraldearen kalifikazio eta ordenazio taxuzko baten premia, baina horretan denbora eta dirurik gastatu aurretik, gure instituzioek, momentuko premiari erantzun nahiean edo lehen aipatu dudan azpiegitura hornitze karrera horretan murgiltzen zaizkigu. Horrela, azpiegitura horiek egitea, boterean daudenen propaganda erabat bilakatzen ari da eta hauteskunde aurrean ponpoxoki etorri ohi zaizkigu hau edo hura inauguratzera. Azken bi inaugurazioak, Arriarango Salbatoreko zabortegea eta Legorreta-Ordizia autobide tramoak dira.

Arriaranen, zabortegeaz gain bada beste proiektu erraldoi bat ere, urtegi bat egitekoa, hain zuzen. Dagoeneko obrak hasita daude. Proiektu hori dela eta zenbait gogoeta egin nahi nituzke.

Ura, beharrezkoa da zalantzarik gabe, bideak beharrezkoak diren bezalaxe. Baina, ura nondik eta nola lortu behar da? Zenbat lurralde izorratu behar da ur hori lortzeko? Zein bide erabili daitezke? galdera horien erantzunak, instituzio ba-

tean lanean dabilten tekniko batzuk erantzun eta besterik gabe tekniko horiek egiten dituzten proiektuak aurrera eramateaz ez nago ados. Nire ustez herrikide guztien artean eztabaida zabalagoa behar da eta eztabaida horren dinamizatzailer instituzioek beraiek izan behar dute.

Arriarango urtegiak 50.000, 60.000 biztanleren horniketakoa izan behar omen du, hala diote behintzat eta Europako herri aurreratueneraiko ur kontsumoak kontutan izanik, egunean 200 litro pertsonako, urte betean 50.000 biztanlek egingo luketen gastua 3.500.000 metro kubikoa irtegarri litzazuke gutxi gorabehera. Proiektuak dioenez, urtegi horren edukiera da tamaina horretakoa. Horrela, urtegi hori betez gero, 50.000 biztanlek urtebeteko ura zihurtatua izango lukete. Nire galderak eta zalantzak kalkulak egin da ez dira uxatzen. Orain Goierri ez al dago ur hornitze azpiegitura bat? Zenbatekoa da gaur dagoena eta zenbat gehiago behar dela uste dute instituzioetako burukideek? Baita honetan biztanle kopurua maila izugarrian gehituko den espektatibak daude ala, nahiko kondentsatua dago dagoeneko?

Nire ustez Arriarango urtegia txikiagoa egin da ere Goierriko nahiko ur bil daitekelakoan nago. Urtegi txikiagoa esatean, urtegi horretara berez datorren ur kopurua batuko lukeena esan nahi dut. Itsasondotik hasi eta hiru edo lau errekatxoetako urak ekartzeko egin behar duten ubidearen beharrik gabekoa. Ubide honek 10 km pasatuko lurraldeak zeharkatzen ditu eta denok dakigu lurralde horietan zer suposatzen duen horrek.

Gauza bitxia da, urtegi hori kokatzen den goikaldean hasi eta orain egin behar duten ubidearen aurkako norantzan, orain dela urte asko ura ekartzeko 6km-ko kanal bat egin zela, kanal hori 5.000 metro kubikoko depositu batetan amaitzen zen eta handik orain Beasaingo herriak

ura ateratzen duen lekura, Makinetxera, urjauzia zegoen elektrizitatea sortzeko.

Badira urte batzuk azpiegitura hura alboratu zela, kanalaren haserako iturria, Iturbeltza, Beasaingo herriak bereganatu bazuen ere. Azpiegitura hura egin zenean egin ziren lanak..., gaur dena erabat alboratu zuten da, han dago depositu galanta lokatzez betea eta orain errekatiko ura aurkako norantzan daramate, eskabadorak 10 km-tan txikizio galanta egingo dutelarik. 10 km-ko ubide hori egin gabe ere ez ote zen Goierriko ur beharra osatuko? Gaur dagoen azpiegituraz gain, ez ote zen nahikoa 10 km-ko ubide hori gabeko 2.000.000 metro kubikoko urtegia? Nire zalantzak indarra hartzen dute, orain Madrilgo Industria Ministroak, Claudio Aranzadik, Lemoiz ez dela behar esan digunean. 1976. urtean, Hego Euskal Herrian 9'6 mila milioi Kw.h-tako elektrizitate kontsumoa izan zenean, 1986. urteko kontsumoa 36 mila milioi Kw.h-koa izango zela suposatu zen eta horrela Lemoiz eraikitzea hil ala biziko jokabide bezela defendatzen zuten Madrilgo zein Baskongade-tako instituzioek. 1986. urtea aspaldi pasa zen eta urte horretako Hego Euskal Herriko kontsumoa 12 mila milioi kw.h-koa izan zen. Orain Lemoizen beharrik ez dago, orduko PNV-k, (Gaurko PNV + EA-k), kandelak eta argizaria aipatzen zizkigun Lemoiz eraikitzen ez bazen, orain ixilik daude. 400.000 milioi pezetza sartu omen dira obra horretan, erraz esaten da.

Beldur naiz Arriarango urtegia proiektatzerakoan, Eusko Alkartasuneko politikoek ez ote diren, azken bi urtetako lehortean oinarrituz, ur arazoa taxuz konpontzeko bideak ipintzeaz baino obra erraldoiak egiteak suposatzen duen ospeaz eta diru mugidaz gehiago gidatu.

**PATXI IRIZAR**  
NATURAZALEA

## Otsoa, uhu, uhu...

**NEREA AZURMENDI**

(Olaberriarra)

**IZENA** Txanogorritxu dut eta amonaren etxera noa, amonaxoren funerala ikustera... Jose Amedok bere bihotzean gorde ditu egun madarikatu hartako oroitzapenak. Bera ez da otso-erahiltzailea, amonaxoren hileta-elizkizunetara abiatu zen Txanogorritxu inuzentzea baizik. Eta halako hilabete luzeotan ahaztu egun hartan gertatutakoa, orain honako ipuin polit hau guztioi kontatzeko...

Txanogorritxu eta otsoaren arteko diferentziak gero eta ahulagoak dira. Ehiztaria da, ipuin honetan, paperik ez duen bakarra. Hilabete asko pasa da, urte asko, GAL delakoak inork baino garbiago gar-

bitu zuenetik, eta demokraziaren epaiketarik famatuena hasi denetik hona, ordu gutxitan iritsi zaigu ezer argituko ez denaren susmoa, susmoa baino ez den arren.

Irudien menpekoea den mundu honetan, Amedok irudia menderatzen asmatu du epaiketaren lehenengo mugimendu hauetan. Epaitua epaile bilakatzen da, otsoa Txanogorritxu. Eta amona hil egiten da, hil egitea tokatzen zaio eta. Era berean, itxurak bilakatzen dira alkate, itxurak bilakatu diputatu nagusi, itxurak bait dira nagusi itzalen mundu honetan. Otsoa Txanogorritxu bilakatzea ez da kasualitate hutsa, anekdota hutsa baizik. Azken batean, itxura bait da irauten duen bakarra. Justizia? Atraso bat.

Goian bego Amedoren amona. Goian bego argitasuna.





## Esne beltz

**ESNEARI** buruz hitz egiterakoan dena beltz ikusten dut, esnea bera txuria jarraitzen duen arren, oraindik.

Esne sektorea, une latzetan murgildu dela denok dakigu eta ilunpe honetan momentu koiunturalak pasa badira ere egoera hau areago doa.

Bizi kostuak gora egiten duen bitartean, guri, baserritarroi, ordaintzen zaizkigun prezioak negargarriak dira eta udara begira, oraindik beherago jaitsiko zaigu. 32 pezetataraino enpresen federazioak dionez. (FENIL)

Gure enpresa komertzial, esku artean dirurik gabe, ordainketa bajuak, hiletik-hilera bajatzen, berandu ordaintzen...etab.

Baserritarrok eutsiko ote diogu geureari? Kooperatibak, eutsiko ote? Sektoreak, sektore osoak, eutsiko ote? Eta gizarteak?

Nere ustez, gurdi batean gaude danok. Beraz zergatik ez gurdi honi tiratu gogoz? Ez nago batere akordioan zenbait ministroren deklarazioekin, ezta zenbait politikorekin ere, bai Nafarroan eta Estatuan ere, baserritarrek erdira jaitsi behar dugula esaten dutenean. Eta komunitate autonomo mailan, ez ote du norbaitek ideia «zoragarri» hori barranean? Ba ahaztu eh! ahaztu. Langile akti-

boen % 3a besterik suposatzen ez dugunean eta gure iritzian, gizarte osoan eta osoari zerbitzu bat eskeintzen diogunean, elikagai sanoak bideratzatik at. Ez dihoa sektore honen konponbideratzea bide horretatik ez.

Bakoitzak eta bereziki baserritar bakoitzak, geure iritzia ditugu eta geure inguruetan eta organizatuta iritzi horiek behar den lekuetara indarrarekin iristeko, EHNE sindikatua tresna nabarmena hemen dugu baserritarrentzat.

EHNEk apustu bat dauka, gaur inoiz baino gehiago eta iruditzen zaigu, hain beharrezko dugun argi izpi hori bilatu dezakegula denon artean:

*Euskal nekazal estruktura produktiboak mantendu behar du. Gizalegezko errenta lortuaz, kalitatezko generoekin eta inguru giroari errespeto batean. Beraz gure lanpostu hauen defentsan, proposamenak eta proposamen tinkoak egin behar ditugu. EHNE sindikatoa, azken denbora honetan proposamen hauek finkatzen ari dela iruditzen zait.*

—Esne produkzioaren kontrola—, oreka, konsumo eta etekinean, baserritar denok eta bakoitzak ditugun eskubideak kontutan hartuaz, lurrari lotutako nekazaritza honetan eta ez aberats diren Nazioen eta enpresario han-

dien menpe. Honek esan nahi du *esne-haragi* produkzioetarako bokatzea errespetu dadila Kantauri ertz guztian.

—Gutxieneko prezioak *esne* kopuru egoki batzuei lotuak, bizimodu «digno» bat lortu ahal izateko eta «superprodukzioak» bestelako prezioekin orekatu. Geure lanetik eta behar dena produzituaz bizi behar dugu eta ez «superprodukzio» batean hil.

Ez dugu onartuko gizarte osoarena den diru horrekiko aurrekontuak, soberakinak al-mazenatzen eta exportatzen laguntzea, baserri eta lanpostu asko suntsituaz.

*Nekazal politika* neurri berriak eta hobek behar dira, benetan nekazariok gizartean jokatzen dugun paper hau errekonozituko duena. Laguntza beraz, *mendia* bizirik behar dugula sinesten dugunok eta mantenduko dugunon errenta osatzean datza. Hau guztion esku dago, irakurle bakoitzak bere harri koxkorra aporta lezake.

*Erosketak* egitera zoazen gizon-emakume hori bertako produktuei lehentasuna.

**ALBERTO ALDASORO KATARAIN**  
BASERRITARRA

## Europaren sabelpe minbera

**EZINBESTEAN** sartu behar du kazetariak etorkizuna igartzen, gutxitan asmatuko bait du eta maiz erratuko. Baina egunotan Jugoslavia hizpidera datorrenean ez zait burutik joaten neuri gertatua. Bi urte pasatxo dira —Berlingo harresiak zutik zirauen tinko—, ofiziokide batek, mikrofono aurrean, Ekialdeko krisi hasiberriaren bilakaeraz pronostiko bat eskatu zidala. Horrelakoetan eman ohi den eskapo —erantzunen bat nire adimenak asma zezan goizegi izaki, zinez pentsatzen nuena erantzun nion xuxen-xuxen: «Jugoslaviak kezkatzen nau; epe laburrera gerra bat sutu dadin kondizioak hantxe bakarrik ikusten ditut».

Gutxitan amorratu nau ezerk iragapen hura betebetan asmatzetik hain hurbiltzeak baino. Inolako meriturik ez duelako eta, aldis, «Historiaren indarren» determinismoaren aurreko ezintasuna moduko zerbaite senti arazten didalako. «De libro» zen Ekialdeko blokea desegin eta berehala, merkatu-ekonomiarekin batera Europalde hartara mende hasierako

giro eta gatazka politikoak itzuli behar zuela. Laburki esanda, orduango gorabeherak eragiten zituzten indarrak 45 urtez lokartu bai baina inolaz ere desagertu ez direlako. Eta «Europaren sabelpe minberan», orduan eta orain, indar horiei gerra usaina darie.

Titoren garaian bazen Jugoslaviaren autodefinizio txistoso samarra: «Sei errepublika, bost nazionalitate, lau erlijio, hiru hizkuntza, bi alfabeto eta estatu bat gara». Kontabilitatea halamoduzkoa zen (nazionalitateak, egiazki, hamabost ere badira, minoriak kontatuz gero; sei errepublikekin batera, bestalde, Kosovo Metohija eta Voivodina lurralde autonomoek badute ordezkaritza lehendakaritza taldean), baina giro zentripeto baten adierazletzat har zitekeen. II Gerra Mundialaren populazioaren ehuneko hamarra galdu eta produkzio azpiegituraren bi heren erraustura gertatutako lurralde hartan bazirudien Tito kroaziarrek tentuz bultzatzen zuen batasuna (gerraurreko zentralismo serbiar despotikoaren kontrairudia, gauzarik gehienetan) errotzen ari zela. Lider baten zuhurtziak eta hainbat herri desberdinen askatasun eta ongizan

nahiak milagroa lor zezakeela zirudien. Tito hil eta, batez ere, Ekialdeko blokea desagertu denean, ordea, indar zentrifugoak biziki gartu dira eta Europa osoari gogora arazi diote datorren mende-hasierako «Ekialde Hurbil inestablea» Europan bertan, betiko sabelpe minbera horretan egon daitekeela. Arrazoiak, betikoak: geografia politikoaren kiribil ikusgarriak, herri asko eta desberdinen interes kontrajarriak, ekonomia ahulezia nabarmenak, kanpoko potentzien gutizia ekonomiko-politiko-estrategikoak, minorien auzi konpongaitza, inguruko estatuen zelatak, serbiar expansionismoa, ... Txinparta, edozein «huskeriata-tik» sor daiteke; sua, Sarajevoko pistola tiro hark hasitakoaren kasuan bezala, auskalo noraino zabal daiteken.

Balkanalde libre, aurreratu eta baketsua Titoren amets hutsa izna ote zen ba?

**MIKEL ARAMENDI**  
KAZETARIA



## OSTATU TABERNA

Giro Jatorra

IKAZTEGIETA

  
JATETXEA  
☎ 885255

ALTZAGA  
DONOSTIA  
Ilsasondo  
Ordizia  
GASTEIZ



  
GIZON  
Hombre  
☎ 88 27 79  
ORDIZIA Santa María, 8

**LOINAZ** Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



**HARLORE  
BITXITEGIA**

Apaingarriak

Domingo Unanue Pl.2. Tfna: 88 96 17

ERAKUSKETA  
SUKALDEKO TRESNAK

*Alpe*

Meriaratz, 4  
20200 BEASAIN

88 86 84

Urdaneta, 68  
20240 ORDIZIA

  
construcciones  
**suquia, s.a.**

HORMA  
PREFABRIKATUAK

Txindoki Etxea  
Tfnoa: 88 58 00/04  
ZALDIBIA

TAPIZ ETA GAINEZTADURA  
TAILERRA

**B i O K, c. b.**



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.  
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

**MIRENTXU  
LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 2. Tfna: 88 14 57



BERTAKO H.B.-K "GOIERRI PROGRAMA" AURKEZTEN DIGU BERTAKOOI

# Erramon Amundarain: "Zatiketaren filosofiarekin hautsiz, elkar gaitezen Goierriko herriok!"

"Elektoralista"ren deituraren beldur eta arriskurik gabe (ebita bezate beraz tentatuek eta onartu berea bezala), aurkezten du Goierriko Herri Batasunak Eskualderako "Goierri Programa" nobedoso. Erramon Amundarain dugu Programaren bultzatzaile sutsuena.

Erramon Amundarain itsasondotar ordiziartuak 40 urte ditu, historia irakaslea da "Goierri" Lan-Eskolan, Oria Eskualdetik bere alderdiko Junterotarako dago, Ordiziako Alkategai izateaz gain, orain arte Euskara Batzordearen Buru izan ondotik.

Euskalgintzan beti nabarmendu izan dela esatea dagokigu guri. Eta intentzio-deklarazio zintzo bat dakarkigula. Norbait behintzat ahotsa altxatzen du hainbatek diogunaren alde eta gaitzerdi.

### Zertan den Goierri

Zertan gaitza. Udal Hauteskundeak inguratu orduko oharu ohi gara Goierriko herri bakoitzekook hainbat arazo baditugunaz gurean, nahi eta ezin konpondu ditugunaz, gure esparru estuak gainditzen dituelako arazoak.

Aspalditik ikusten zen halakoren premiarik. Goierriko HB mailako aurreneko bilera orain hiru bat urte egin zen. "Konturatu ginen herri bakoitzak dituen prolemetaz aparte badirela arazo amankomunak. Eta arazo horiek soluzionatzeko derrigor hautsi behar zela neurri batean herri bakoitzeko lehia tonto horiekin. Adib.: Ordizia Beasainen kontra edo alderantziz, esaterako, Suhiltzaile edo Epaitegi asuntoetan. Bata Ordiziak eskuratu nahi zuela, bestea Beasainek nahi zuela: bat mogitzen hasi, bestea atzetik. Zabortegea dela, dela Oria ibaia garbitzea, zabor-bilketak direla... Hori horrela,

orokorrean, nefasto dela esan liteke. Seguruena, Goierriko galdu du ez dugulako gauzak amankomunean egiten ikasi", dio Erramonek, itsuak ere badaki esanez bezala.

Bistan da "Taifa erreinu"tan sakabana-turik gabiltzala goierritarrok. Orain arte ezer askorik ez da egin dinamika hori haustekotan. Beraz, beren proposamenak zabalak eta gehiegi zehaztu gabeak izanagatik, ordea, bideak urratzen eta gaiak jorratzen doazen mailan zehaztuko dira konponbideak.

Jakina, bidea egiten hasteko zenbait ideia oker, aurreiritzi, topiko, "munizipalkeria" eta zentzurik gabeko gatazka alde batera utzi beharko dira. Amundarainek behin eta berriro dio: "Badela ordua hasteko GOIERRI bezala funtzionatzeko, arazo oso inportanteak ditugulako, herri txikietan banaturik gaude eta eskualde mailako kontzientzia, mentalitatea behar dugu. Jendea esan behar zaio bakoitza bere herrikoa dela, baina zergatik ez, ondokoa zapaldu gabe, geurerako lortu eta aprobetxatu "besteenaz", deno naz?"

### Ekimen berriaren objetiboak

Gaitza sendabidean jartzea. Konturatzeko gure inguruko herrietan gertatzen denak baduela eraginik guregan ere eta,



horregatik, interes kointzidentek ditugula bailada mailan.

Oraingoan, HB-k ahalegina agindu du Goierriko programa hau prestatzen eta presentzia duten Udaletxe guztietan defendituko dute. Uste dute gainera, Udal herri guztiek defenditu beharko lituzketela ideia hauek, bakoitzak bere autonomia gordeaz.

Kultura alorrean, berriz, HBko hitza duenak, uste du ezin sinistuzkoa dela eraman den politika. Polikiroldegiak esate batera:

"Hor daude Segura bateko belar artifizialeko futbol zelaia; zergatik ez Ordizia, Beasain, Lazkaoko jendeak erabili, Segurari beste prestazio batzuk emanaz trukean: hemengo piszinen erabilera debaldekoa, adib. Ordiziak eta Beasainek, bakoitzak polikiroldegi bana, oso erabiliak ez direnak, infrabalaratuak eta defizitarioak dituzte. Hobe zatekeen batean igerilekua eta beste zerbait, eta bestetan beste kantxaren bat, eskaintza handiagoa eta partitukoak egotea istalakuntzak. Futbol zelaia eta Rugby kanpoarekin berdina... Horrela ezin da jarraitu!"

Horregatik, Goierriko HB bezala, gutxien-gutxieneko programa bat eratu du-





te. Guzti honen helburua ez da Udalen gainetiko Erakunde bat montatzea, baizik eta Goierriko Herrien Ekintza Fundazioari buruz bezalako gai puntualen aurrean baino gehiago biltzea. "Momentu honetan, gure helburua da zatiketaren filosofiarekin hautsi eta elkarlanean hastea herri ezberdinak".

**GOIERRITARRA.-** Kulturaarentzat, zer duzue pentsaturik?

**ERRAMON AMUNDARAIN.-** Kulturari, uste dut kristoren proleak daudela Musika-Eskolekin. Euskararen aldetik, ikusten duk, Udal Euskaltegia, Beasainen bat; Ordiziakoa ezin homologaturik, jenderik osatzen ez duelako: bi; Goiztiri AEK, Beasainen, Ordizian, Lazkaon, hirur, lau, bost... Zer esanik ez aurrera atera nahi diren proiektuak: GOIERRITARRA bera, Bertsolari Eskola... Nik uste dut hauek izugarritako garrantzia dutela eta babestu eta goxatu behar direla, baldin eta Eskola, Eskola Irekia bezala ikusten badugu, esaterako. Ezin funtzionatu dugu eskoletan orain dela 50 urte bezala eta agian hasi beharko dugu goizetan jornada intensiboagoak eginez, arratsaldeak musika, kirol, kultur-gai, bertso eta edonolako ikastaroak emateko. Beharbada, euskaraz bakarrik funtzionatu dute zirkuitoak sortzeko.

Pentsatzen hastea ere ba omen da Euskal Txoko bat sortzean, herri batean ezinezkoa bada, ahalezkoa den herrian.

**G.- Hortik dator, akaso, Euskararen Gabinete Teknikoa sortzeko asmoa?**

**E.A.-** Noski baietz. Euskara Gabinetearen sortzerakoan ez da esan nahi itzultzaile bat enplegatzea. Hor dinamizatzailearen bat edo beste, liberatuen bat egon beharko du. Liberatuen lanak dira, hasi liburutegi antolaketatik, ludotekak daudenetan (Ordizian bat martxan jartzeko asmorik bada) pentsatu behar da ze material didaktiko sartu hor, egin jarraipen bat kirol, kultur eta beste elkarte guztiena, zer eskakizun dauden, zer eskain daitekeen.

Guzti honen helburua ez da ia euskaldun diren Udalerrien arteko sare elebarkar baten parekoa montatzea. Hori utopikoa da oraingoz Goierri (agian, Ataun, Segura, Zaldibia, Idiazabal, Itsasondon... posible litzateke). Ez, helburua da ber-



tako euskara suspertu eta erabiltzeko estrategia bat diseinatzea. "Goierri mailan funtzionatzen da: Goierri Eskola, eta aldikari bera bezalako zenbait ekimenen jarraipena egitea. Dauzkagunak askoz hobeto organizatu eta dinamizatzeke", dio Erramonek.

Baditu Programa honek puntu gehiago. Hauexek: Goierriko Lurraren Ordenazio Plana egitea. Industri dibertsifikatzea. Eskualdeko komunikazio sarea hobetzea, kanpora eta barrura begira. Irakaskuntza eta ingurugiroaren gainera. Zerbitzuen jentzio bateraturantz jotzea elkar lanean eta noski, edozein proposamenen aurreko irekitasuna.

Honelako apustu batetan zertan sarturik ez zeukaten, dena ondo balihoa. Egungo Erakundeak, Goierriko Herrien

Ekintza eta beste, "inolaz ere ez dira nahikoak. G.H.E.-k teknologia eta enpresen mundua planteatzen du soilik. Iruditzen zait ez dugula erori behar planteamendu ekonomizista hutsetan. Kontutan edukiz asti librerako dugun epea lehen baino askoz zabalagoa dela eta begien bistan dagoela zer prolematika daukagun, estremitara joan gabe. Oraintxe, nire iritzia da gaztedia "gogoz" aspertzen dela, non parte hartu ez eta alternatibarik ez duen".

**G.- Nola gauzatuko da Goierri Programa? Zeintzu dira hurrengo pausuak?**

**E.A.-** Guk, HB bezala, Udal Hauteskunde osterako egitura bat sortuko dugu. Herrietan badira batzorde municipalistak; badira Goierriko guztien ardura daramatenak eta horien inguruan batzorde berri bat sortuko da, arloz-arlo funtzionatzen hasiko dena, pretentsio handiegirik gabe, gutxieneko puntuekin eta jomuga duela herri ezberdinen arteko kompetentzia ton-toak haustea, hasieratik.

"Hor sortuko diren giza-harremak!", dio bukatzeko Ordiziko politikoa. Zer edo zer aterako bada hortik, datorrela nahi badu ttottoaren ipurditik!

**"Ez dugu planteamendu ekonomizista hutsetan erori behar"**

Jon Arano  
Mikel Aramendi





**IRVROK** S. L.  
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea  
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54

**OLABERRIA**

# HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4  
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

# Bilore

## TROSKAETA

T A B E R N A

Bazkari eta afariak

Tel.: 881037 ATAUN

**T A**

**M A**

**Y O**

- ☐ OFIZINARAKO MATERIALA
- ☐ ESKOLARAKO MATERIALA
- ☐ OPARIETARAKO ARTIKULUAK

Amerika, 2. Tfnoa: 88 89 80 20240 ORDIZIA



*Aloska*

*Edergintza eta Usaindegia*

Domingo Unanue Plaza, 2  
Tl. 88 24 10

20240 ORDIZIA  
(Gipuzkoa)

MUEBLES

*Ordizia*

**HALTZARIAK**

Tfnoak: 88 23 50  
88 23 54  
88 11 92  
88 53 50

46, Posta Kutxa  
ORDIZIA



## Autowag, s.a.

Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.  
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN

**ORBELA  
TABERNA**

Berezitasunak Txikizotz,  
Opiltxoak eta Patata Tortillak  
Tlf. 88 28 83  
Nagusi enparantza, 8 ORDIZIA

## XUME EDARITEGIA

Giro alaia, jende jatorra

Nagusia, 5  
IDIAZABAL



## ORMAIZTEGIK BERE SINBOLOARI EUSTEA ERABAKI DU

# Iraganetik etorkizunerako zubia

Ustez Eiffel-ek diseinatutako zubia ez botatzea erabaki zuten, hauteskunde munizipalak aprobetxatuz, ormaiztegiarrek erreferendumean. Askok uste genuen Ormaiztegiko biaduktoa Eiffel-ena zela. Bada, ez. Eiffel estiloduna bada ere, Lavalley izeneko ingenari frantses ospetsuaren lana da, dirudienez.

**H**alakorik espero ez genuenean, harriturik utzi gintuen ekaineko lehen egunetako "Argia"k zekartzanak. Zubiaren proiektua Gustav Eiffelek egin zuen ustea zabaldua zen. Lan zuzendaria H. Letorneur zelakoan geunden. Lavalley-k "M.M. Ernest Gouin et Cie" enpresan lan egiten zuen eta hasieran Olazagutia-Beasain tramo bertako kontratisten eskutik utzi bazen ere, epearen barruan amaituko ez zen beldurragatik, azkenean kontratista frantses hauen eskutik utzi zen.

Ormaiztegiko Alkate berria den Juan Karlos Leturiak, biaduktoaren aitatasun faltua errekonozituz, jendeari ezer ez zaiola gorde adierazi zuen. Baina egia esan, jendea oraindik Eiffelen lana dela-koan dago.

Guztiau, RENFEk zubi berria egiteko asmoa azalduz geroztik dator. RENFEk hormigoizko biadukto modernoa berregiteko 5.000 milioiko aurrekontua onartu du. Oraingoaren parean joango litzateke. Dagoena zaharkitua gelditu da antza denez, trenen abiadura eta pisuagatik eta enpresa espainiarrak ez du erabili nahi. Herritarren gustokoa da ordea zubia eta Udalak ez du bota nahi, berriztatu baizik.

Ormaiztegiarrek zubia, beren sinboloa, mantentzea erabaki dute erreferenduz: 376 botu alde, 214 aurka eta 50 bat zurian. Berrikuntza lanak lau urtetik behin egin beharko lirateke eta berritze bakoitzaren kostua hamabost milioikoa izango litzateke. Konforme, halere.

### Pirineoaldeko garrantzitsuena

Iazko udako ale berezian, Garbiñe eta Edurne Ezkurdiaren "Ormaiztegiren bide


berriak" lan mardul eta argitaragabekotik ateratako artikulu bat eskaintzen genizuen. Eiffel-en zubi honi buruz ere badute zer esanik ezkurdiatarrok.

Jose Mari Donostik idatzi zuenez, "No se concibe Segovia sin su acueducto, ni Ormaiztegui sin su viaducto".

33 metrotako ibarra gainditzen duen 276 metrotako zubi hau 1860. urtetik 1860. arte eraiki zen, Isabel II.ren garaian, "Norteko" burnibide lineak Madril eta Irun elkartu nahi izan zituenean.

Garai hartako eraiketa tipikoa da, leihoisarezko gapirio eta milaka errema-txerekin, metalezko bost bidegunez osatua. Bere 1.800 toneladak eusteko bi oin-toki edo estribu eta lau harlanduzko zutabe jarri zizkieten. Gerora, hirugarren karlistadan saboteatu egin zuten. 1912. an bide bikoitza gehitu zioten. 1936. ean Mola jeneralaren erasoak gelditzeko "gorri"ek "Altos Hornos"etik beharturik ekarritako ez nolanahiko sopletistek suntsitu zuten eta berreraiki zenean, (37.a) hormigoizko errefortzu gehiago jarriko zizkieten "pontonero"ek. Mola bertan izan zen, afusilatutako sopletistak, ez.

Eraiketa izugarri honek, lehengo mendeko garraiorako posibilitate urriak kontutan izanik, lan gogorra suposatu bide zuen. Inguruko jendearentzat lan ugari sortu izango zuen. Zutabeak egiteko harriak Idiazabal, Lazkao eta Gabiritik idiz bultzatutako karroetan garraiatu ziren. Lan hauetan gizonen batek bizia galdu



Ormaiztegiko zubia

omen zuen, hala adierazten bait du orain dela denbora gutxiarte zubi azpian egon den gurutzeak.

Ba omen da honen inguruan kontatze-ko moduko istorio polit bat. Jose Inazio Urkia, Gaintzako ostatuan jaiotako 21 urtetako gaztea, beste asko bezala Ormaiztegiko zubian lanean ari zen. 1866. go martxoko egun batean, goizeko hamarrek inguruan, andamio batean zutabeak egiteko harriak jasotzen ari zela, une batean deskuidatu, manibela askatu eta hau bueltaka hasi zen. Halako batean, bere erropan katiatu eta 26 metrotik behera amilduko zen.

Non eroriko eta, zorionez, langile batzuk prestatzen ari ziren masa biguinean agertu zen. Herriko sendagileari deitu eta zentzurik gabe, une hartan alokaturik zegoen Iriarte etxera (Zumalakarregiren jaiotetxera) eraman dute. Lau bat ordu pasa ondoren esnatu eta berehala etorri zen bere onera, hezur bat ere pitzatu gabe. Anekdotak xelebre hau Gipuzkoako mugaz kanpo zabaldu eta gaztea ospetsu izatera iritsi zen.

**GOIERRITARRA**  
(kolaboratzaileei esker)



# ITSASONDON KONTATUTAKOAK ETA GERTATUTAKOAK Amona Ximona jostunaren kontuak eta koitak

Gure Goierri honetan ehundaka behar dute izan aintzinako eta bere garaiko kontu eta gertatuak kontatuko lituzketen aiton- amonak. Denak harrapatzea ezinezko zaigunez, bihoaz momentuz Itsasondoko Amonarenak, akabatzeaz dagoen mundualdi bati omen gisa, berarekin ordutako grabaketak egiteko zoria eduki eta eskura ditugunez, gainontzeko agureek dakizkiten istorioen antzekoak edota generokoak izanik, erakusgarritxo honek esplikatuko dituelakoan.



\*\*\*

### Perirako bidean asteazkenez

Perian tratua eta jendea, baiña, arrapazka! Bezperatik prestatzen gendun biaramoneko tratua. Baserrietakok goizean goiz jeiki bearko zuten eta bati baiño geiagori maindirak kenduko zizkieten esnatu ez eta oera pegatuta gelditzeagatik, modu ez ain egokietan.

Etxeberriko Mari Karmenek kontatu oi du. Erderaz trakets xamar moldatzen ziren ezkerro, tratua egiteko erderaz esan beharreko itz juxtuak ikari memoriz eta itzok bein da berriz esanez joaten omen ziran perira, San Juango kamiño zaarretik.

Aillegatu tratua egiteko ordua eta beti ere zertxobait aldrebestuko zan itz egin bearrekoa eta ezertarako balio ez ikasitakoak. Onik aterako ziran pasutik, baiña momentuko apurua.

Or, Goi-erri, Urki, Santa Marina, Legorreta eta orkoak, festa egiten zuten periondoko ortan. Festa, egun guztiko gesta. Goizean atera eta gauerte peria. Aientzako jai eguna zan asteazken osoa, ostegunarte akaso. Al dan arte perira joango gera. Ez bagoaz, malo!

Tratua egiterakoan, saiatu egin bear pixka bat, saiatu. Goizean ez oso goiz, amarrak aldera asten zan tratua eta egia diot esaten dedanean gaur aiñako pelea izaten zala sal-erostunen artean. Gu, tratua saldu eta etxera eguerdiko amabieta-rako. Amabitan, berorik audienean etxeratu bear. Egoten zan Larratxeneko denda parean maai bat jarrita, sinfalta. Gure irrikizioa izaten zan: baso aundi ba-

**M**endearekin batera etorri zen mundura Ximona Ibarburen, Itsasondoko Ibarre baserrian. Sorotik jostorratzetara eta alderantziz, emakumetutakoan Tomasene etxera ezkondu eta urte eta urteetan jostera emanda jarraitu du, bizitzaren alde onari begiratzea nahiago duela.

Familia aurrera atera eta lasai bizi da zahartzaroan, gehiegi bizitzea ere ez lukeela nahiko diola. Emakume jantzia dugu oso Ximona, ikusi egin behar da zer itxura oneko idatzia egiten dituen. Emakume animosa baten aurrean zaude irakurle, eta pozik egoteko moduan, euskal herri-literaturaren zale baldin bazara, emakumezko askok ez baitute testigantzarik utzi.

### Antziñatik datozte diru-hotsak

Gure aurrekoek kontatuta. Beurak ikusi ez, e! Pentsa, bi gizaldi izango dira onezkero, gutxi fida.

Leenbiziko etxea Itsasaga omen zan Itsasondon eta urrena, ikusten danez, Legorretazar, eta esaten omen zan: —Auzoa (izateko) gertutxo.

Itsasagakoak ontzako urrekin aritzen omen ziran jokuan. Jende aundia izango zan ura gero! Egunen batean umeei politak iruditu ontzako urre aiek eta aiekin jolasean zirala esan omen zien nagusiak:

--Et, et, et, utzi oik paken, oik badute jabea-eta!

Leenagokoak esana. Ez zan edozein etxe izango Itsasaga, bere sepultura eta guzti zuen elizan. Aundikiak bear zuten izan.

Beste bat ere esango det. Loteria erori omen zan, gerotxo, erriko Otamendi-azpira. Auskalo, berreun urte igoal izango dira erori zala "piko" ura. Bai orixe, gehiago ezpada ere onuzkero. Dirutza tokatu zitzaion gizona Tolosara joan eta ekarri ditu diruak zaku batean sartuta. Zakuan, orduan ez zan papererik, dirua duro zillarretan eta peza zillarretan. Txin-txin diruaren otsa eta, bein etxeratu, zer ote zekarren zaku artan, galdetu andreak. Bromatan, iltzeak zekartzala, erantzun gizonak. Sukaldean ustu omen zuen bada eta etxeko danak ikaratuta. Parte onekoak ez zirala eta parte onekoak ez zirala izango esaka.

Diru askotxo, sekulan ez zuten ikusiko duro bat baiño geiago eta ostutakoak izango ziralakoa. Zakukada zillarrezko duro! Ura ermosurea izango zan eta alare txarrak izango zirala aiek eta errezatza abiatu omen zan andrea elizara.

\*\*\*

Diru kontutan, aldrebeskoak maizago eta esango det au ere. Emen, auzoko etxe batean, bertako etxeakoandrea bere sukaldeko armarioak txukuntzen ari zan beiñola eta paper zaarrak surtara boteaz, eta alako batean nun esaten duen, —Jesus!

Bere senarrak ekarritako sobrea edota jorjala sutara botako zuela eta erre. Bai eta ala gertatu ere! Bada, oso juxtuan bizi zan familia ori eta nik ez dakit nola moldatuko ote zan emakume errukarri ura illabete bukaerara iritsi eta bitartean ixilik pasatzeko.



tzutan boladuak. Orain ere badaukat nik ibiria boladu aietxena!

Badakizu zer ziran? Bada "esponjak" edo esaten zaieneta oietxek. Oietako aundi bat sartzen zuten ontzian, betetzen zuten ur freskoz eta, ai, ura gauzea! Amar xentimu. Ordun etzegen pasteliririk eta olakorik eta gustora etortzen giñan arekintxe etxera. Konforme! Kontu-kontari, bakarka ia iñoiz ez, bi-iru lagun, batere akordatu gabe aillegatu etxera.

Bein banator bada, oiñez etxera (oiñez etortzen baikiñen, arik eta geroxeago arte ez baitzan asi tranbia, edo asi bazan asi berria), gerra garaia asita zan eta or Ikaztegieta "Presalde" deitzen ziotena bazan, bere karroarekin bidez-bide zebillana. Gizon orren karroa polita zan oso, aparta benetan, bere mandoekin. Banator Intxausti alde ortan, eta: —Andretxoa, errel bategatik igo zaitea bada!, esan zidan. Grazi egin eta igo nintzen olaxe. Alajañetan!, berak egin prezioa, erreala.

Grazi egin eta alaxe etorri nintzen, erreagatik exerita, trenaren prezioan. —Bejondeizula!, esanda or joan zan bere bidetik. Baiño gizarajoari kendu zizkioten erreala eta duroak ere, zitun txanpon guztiak azkenerako.

Gerrakoan zillarrezko txanponak erreikatu egiten ziran. Ordena zorrotza, entregatu egin bear, bestela ortik orreraiñoak. Sobrare, zezakeen xamarrara, bazezakeena izango zan "Presalde" ori. Salerosketan ibiliko zan Ikaztegieta gizona, txerri edo beste jeneroren bat eraman eta ekarriko zitun.

Gero kartzelara eraman zuten. Ez dakit zergatik, baiño kartzelara eraman dute gure gizon au. Ez dakit ezta ze martingala erabili zuten, baiño atera zioten zekiena. Eta etorri omen zitzaizkien "Presalde" orren etxekoei, alako lekutan ainbesterañoko zuloan zegoen baldea emateko esanez. Azkenean norbait beñepein atera arazi zizkioten lurperatuta zeuden diru-zillarrak.

Kontu ura sekretotik ateratzeko ez zuten kupirarik izan: bizkarreko beroak emango zizkioten. Ori seguruago. Pentsatzen jarrita, bada, nere errealtxoa ere an joango zitzaion gijajo ari.

Trenaren aurretik, jendea oiñez ibiltzen zala. Bizitzak agindu eta oiturretara bearko oitu. Legorretakoak ere Billafranka bidean oiñez ibiltzen ziran. Urrutiagotik ere bai, etorri, eta pentsa, atzera oiñez joan ere bai, buruan karga zutela. Baita Balaeraindik bazan ere.



Baiña ikusi eta, batipat, usaitu ez duenak ez daki. Aik pasatzen ziranean, sestoa buruan zutela, a ze usaia botatzen zuten, ura kafe usaia! Oraingo kafeak ez dauka alako usairik. Bada kafe usai bat uzten zuten atzetik...! Oi ama, ez zuten bada kilo kafe baiño geiago eramango. Tostatu berria izango zan eta aren lurriña, ez dago esaterik, aparta. Gustoa ere alakoa zun kafe ark.

Ordun Legorretan eta inguruotan bizi ziran guztiak ezagutzen giñutzen. Etxekoak, emengoxeak bezelaxe. Oiñez etortzen ziran, da oiñezkoak ezagutzen du, bai, oiñezkoa. Orain berriz ez degu iñortxo ere ezagutzen emen.

Bazan an Dolorex "Motots", edo zer esaten zioten? Ezaguna zan, xelebrea. Bakar-bakarrik bizi zan Legorretan, etxe baten. Oilloak, egazti eta beste guztiak bere koartoon eukitzen omen zitun, esaten zuten.

Antxe, bakarrik bizi zan eta asto-xar bat bazuen eta arekintxe aterako zan goizeko zortzietan edo bederatzietan. Arratsaldeko bostak izango ziran ura etxeratzet zenerako. Noizko, asto aren pausa-jean joan etxera?! Gajoa, bakar-bakarrik bizi zan. Gu, ari illea artzera joaten giñan jaietan eta beste zenbait festetan. Ez zan arlotea, gajo-gajo bat zan. Ez dakit zerekin pasatzen zan ere. Berak egiten zue-netik biziko zan: oilloa zala edo arrautza zala. Ahal zuena arek ere, aal zuena.

Emengo pasadizorakoan, fabriketatik-eta asten zitzaizkion oska: —Dolorexx!, asto orri emaiouzu pentsue!, algara batean. Olaxe Otsegiten zioten. Ezin ibilik joaten baitzan asto gaixo ori. Eta Dolores Motots ura, paiñelu aundi bat ondo asko lotuta zuela joango zan ortik beera gajoa.

## Lehenagoko sukaldeak eta sukaldekoak

Orain dala larogei urte, emakume eta etxekoandreak ez zuten gaur beste lan jana prestatzen. Goizeko zortzietan jarri babarrunak urdairekin lurrezko eltze batean, su-bajuan pill- pill-pill egiten zutela, poliki-poliki eta, gero, aldian bein astindu eltzea, baiño ez kutxarekin, eskuarekin kirtenei eldu eta goraka indarra egiñez, barrukoak buelta eman zezan. Oso ona da ori, aldian bein astindu eltzea eta garbantzuak edo dana dalako eltzeak oso-osorik ateratzen dezu artara.

Amaiketan olioztatu, olio baratxurikin erreta eta gatza. Esaten ziguten, emakumea emakumea bazan, eman bearko ziola olio eltzeari goizeko amaiketarako.

Eltze bakarra, baiña ura bai goxoa. Ala zan. Baita gaurko urdaiak baiño gusto obeagokoak. Izan ere, arto utsarekin gientzen baitziran txerriak. Su-bajua zan orduan baserrian. Gerora asiko ziran ekonomikak. Esan oi zuten, "ekonomikak" ez baiño "gastanmikak" zirala: egur asko bear. Ori nerone adituta nago nerone baiño zaarragoengandik.

Denbora askoan ezagutuak ditugu ekonomikarik gabeko sukaldeak baiña auek etorri eta egurra txikitu bear sarri: su orrek sartu adiña egur jaten du. Enborrak berriez, ez. An irauten zizun goiz guztian edota egun osoan igoal. Naiago gendun su-bajua.

Artean, su-bajuaren inguruan egiten zan etxeko bizimodua: eginbearreko dakanak, erreztatu, ixtorik kontatu, etxeko martxa. Orain ume txikiak maai gaiñetan jantzitzen dituzte. Orduan su-beroaren ondoan, magalean artuta. Magalean gozatzen ziran umeak, leun asko. Oraingo



emakumeak umeak magalean artzea zer dan ere ez dakite ordea.

Leenagoko etxeoandreen leenbiziko lana zen eltzea begiratzea. Ez zan entsalada bat, ez menestra bat. Eta gu konforme egoten giñan bada! Orain, egiten ziran bai, urtean bein edo bitan, ardia il edota txerria il eta alako tripafestatxo batzuk. Ez zan goserik izaten, gerra garaian ezik. Orduan, orduntxe bai pasatu gendula gosea. Zer zan ura! Bazkaria amabietan izaten zan, puntu-puntuan, ez zan izango bost minutu geroago. Bazkalorduan bazkaltar beste kutxara. Janaria maairatzeko fuente edo ontzi bakarra. Amabietan bazkaria eta amabiterditarako libre, kalean.

Gero, zer izango eta, algodoia merke jarri zan. Olako xorta batzuk izaten ziran sei txakurraunditan. Irurogei xentimu algodoi sortak. Orrekin etxerako gauza asko egiten ziran: kurtiñak, oegaiñekoak eta beste zenbait pitxi. Kurtiñak-eta, gantxilloz egiten ziran asko eta asko. Oazalak ere bai eta mezedora eta alakoetan jartzeko tapetetxoak ere gantxilloz. Adibidez, maai txiki borobil bat bazenun, aren bueltan jartzekoak. Pitxikeri pranko bai.

Olaxe, esku-lanean aritzen giñan, tertuli egiñez, aurki izaten baitziran auzokoak kanpoan. Esaten dizut ze azkar egiten ziran sukaldeko lanak. Ez zan orduan azulejoak garbitzen lanik, ez oiei "blancoespaña" ematen, ez autsak kentzen, txapa garbitzen ere ez. Lurzoruko aundiñak erratzarekin jaso, su-bajura bildu autsak, sukaldea ixtanpatean jaso eta gaur egungo lan-erdia eginda bizi ziran orduko etxeoandreak.

Eguerdi parte ortan oitura bazuten gizonetxoak, gu geurera ari giñan bitartean, lastopillan lokuluxka bat egitekoa. Emakume, agure eta umeek, berriz, segi atarira eta lasai, ez irratiarik, ez telebixiorik ez eta beste martingalarik. Alare konforme, zeukanak zeukanarekin. Ez gaur bezela, beti aurrekoari begira, ezin arrapaturik, atzekoei begiratu bearrean.

J.M. Arano Aramendi

# Lierni Elorza: «Eskabadora arteko atxurra sentitzen gara»

**I**rrati erraldoi eta guztiahaldunen kontrako lehian, badira txikiagoak izan arren ere antzulego finko bat mantentzea lortu duten proiektu apalagoak. Horieta bat, Goierriko bihotzean dagoen eta bihotzean Goierri duen «Segura Irratia» da. Beren txanda zela eta, Lierni Elorzarengana jo dugu bertako kontuen berri izan asmoz.

**ARGIA.** Zein programa klasek osatzen dute «Segura» irratiako programazioa?

**L. ELORZA.** Batez ere programa entrete-nigarriek. Gizarte eta kultur albisteak eta herritar xeheak sentitzen dituen gaiak jor-ratzen ditugu, bertako eta bertakoenak izaten direlarik gehienbat. Askok «Segura» irrati-a funtzio erlijiosoe-kin bateratzen dute, eta ezin badugu ukatu saio batzuk baditugula, hori esaten duenak gure irratiari astoak kabestroak jarrita dituenen bezala begiratzen dio.

**A.** Zeuen irrasaioetan da-rabilzuen euskara, batua eta goierriko hizkeraren nahasketa da. Entzulegoa-ekin barreman estuagoa lortzearen izango da...

**L.E.** Bai, batua eta goierri-tarraren nahasketa bat da.



Goierritarra bera herri batetik bestera zer bait aldatzen da hala ere eta zaila da nahiz oinarri bati eutsi inorri belarrian ez jotzeko moduan goierritar hutsez egitea. Batuz soilik egitea ez dugu ondo ikusten, goierri muinean dagoen irrati-a garelako eta norberak duen bapatekotasunari kontra eginagatik artifizial samarra geratuko litzatekeelako.

Tarteko formulak erabiltzen ahalegintzen gara beraz.

**A.** Beste irrati handien ondoan ez da erraza izango tartetxo bat egitea. Arlo borretan medio handiko irratiak aurrea hartua dute nolabait...

**L.E.** Bai, badago noski ahalmen handiko irratiak jango ote gaituztenaren bel-durra. Eskabadora arteko

atxurra sentitzen gara, besteak arrasatzen saiatzen diren tokietan gure baratzako txo-koak bertatik bertara gure eskuz kuttunki landuz eta goxatuaz aritzen gara gu.

**A.** Hori da beraz, kon-petentzia handiko medioa den irrati munduan, entzulegoa erakartzeko erabil-tzen duzuen formu-la...

**L.E.** Ondo eginiko produktoa egitea da for-mula. Hain modan dauden kopiak alde batera utzi eta orijinaltasuna ezinbesteko errekurtsotzat hartuaz, bizi-tasuna eta freskura eskain-tzea. Beste aldean dagoena zaindu eta mimatu behar da. Zer nahi duen jakin, eta hori nahi duenean eta nahi duen moduan ematea.

ALBERTO IRAZU



SUSKRIBITU ZAITEZ!

**IRAKURRI  
ETA ZABALTZAZU  
GOIERRRITARRA**

**GAUR EDO BIHARKO  
KOLABORATZAILEEI:  
GURE TELEFONOA, 889612.**



**BART, GAZTETXEA ERRE ZIGUTEN: BAPO MOTILLAK!**

# Gau iluna

Izarrik ez dagoenean, ilargia izkutatuta, argiak itzalita daudenean, begiitsuak itxuraz ahazten dira. Gau iluna eta mamua beltzak dira. Egia txuria dela esaten dutenak, egia zer den ez dakite; edo bestela, gau ilunetan bihotza itsua daukate.

“Gaur ikusi zaitut beltzez jantzita; zu, ez beltza ez txuria, kolore askotako zinena, gau iluna bihurtu zara. Zure barnean gaur ez zegoen argirik, soinua mutututa, irratitik inork ez du bere erokerietaz hitz egingo”. Bart, gure eta zure etxea, GAZTETXEA erre ziguten.

Erre baino lehen, janzkera guztiz beltza izan ez dadin, kolorezko pintadak egin dituzte (“os vamos a hostiar”) koloreri buruz (“la llevais clara”). Mamua gau ilunak bildurtzen du. Bere erditzean egon zirenek, hainbeste lekutan be-

zala, zaila baina ausarta izan zela kontatu digute; mamuak ez du inoiz bere jaiotza ospatu, alderantziz, akatu nahian ibili da.

Berak ez daki gau ilunak ez gaitula izutzen, gu ez bait gara itsuak. Mamuaren mezulariek gure etxetik edariak eta dirua lapurtu zituzten; orduz gero hamabost aldiz atera da ilargia, hamabost aldiz izan da han edo non gau iluna. Mamua asezina denez, bere zerga bigarren aldiz ordaindu genuen. Oraingo honetan Irratiko zenbait tresna izan ziren. Gu hain inozo garenez, gaiztoak izateagatik multa ordaindu behar genuela ez genekien: hirugarrenengoan ARLOTE IRRATIako tresneriari tokatu zitzaion baita. Inozo gu, leloak (?) haiek. Babiliozko gauzak eraman beharrean, irratitik emititzeko behar diren tresnak lapurtu eta puskatu zituzten.

Oraingo honetan, laugarrena, mamuaren mezulariak gasolinarekin etorri dira.

Gau iluna ikusi dut. Bihoztzarekin. Ipurdiarekin. Nire sabela, horma ikutzera-koan beztu da, nire gogape-na hostogabetu da liburak eta aldizkariak ikusi ditudanean, nire belarriak oihukatu dute diskak entzun ahal ezin izan dituztenean, nire... zure... gure... Gau iluna naiz.

Eta denak jakingo duzue han gertatutakoa, mamuaren mezulariak egin dute-naz; Mariren seme-alabek kalean oihukatzen dutenaz (“Herri bat, Gaztetxe bat”); eta Txindokik haizeari kontatuko dio dena, sorgin guztiek jakin dezaten, gau iluna bait gara.

**ORDIZIKO  
GAZTETXETARRA**





Amorrazio eta erresakak igaro orduko lana: Gaztetxea berreraiki



Gaztetxe eta Arlotekoek emandako prentsurrekoa: "Nahikoa da!"



Gaztetxeakoak gaztetxoagoak ziren. "3. Karlistadako Kronika" filmean estrak izan genituen: iskilu, txapel-gorri eta guzi!



Ordiziako Gaztetxea

### Foto-berri eta testu-zaharrak

Gure artxiboa osatze-ahaleginetan, sarituak izango dira foto-berri eta testu-zaharrak (edota alderantziz, foto-zahar eta testu berriak) 124. posta kutxara bidaltzera ausartzen diren guztiak.

Aipatutako kopiak, fotografikoak nahiz fotokopiak, e.a., Goierriekin edota bertako herriekin zer ikusirik balute, hobe baino hobeto. Saria, orain arteko GOIERRITARRA guztiak ez ezik hemendik aurrerakoak ere jasotzeaz gain, publikatu egingo zaiola bidaltzaileari.

Animo!

**GOIERRITARRA** etxean jaso nahi dut  
**NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT**

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA..... TLF. ....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

**DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI-ESKER**





## NATURAK ERAKUTSIKO DU, BAINA... ZEIN HEZIKETA NAHI DUGU?

### Haur, gazte eta zaharrok, badugu sexualitate informazio beharrik

Sexualitatea gainditu beharreko "asignatura pendiente" bat izan arren, ez dira beti benetazko beharren arabera jarrera hezitzaile eta pedagogikoak hartzen.

"Sexualitatearen heziketatik" maiz hartzen dira, zuzen ala zeharka, progresia itxuraz hori bai, hezkuntz inizatibak blokatuko dituzten jarrerak. Askotan nahikoa izaten da "eskandalizatzeko prest" leudeken gutxi batzu topatzea, Zentru batek edozein inizatiba zentsura dezan.

Batzutan zera esaten da: "Praktika eta libertinajea bultzatzea da", "alferrikakoa da, haurrek ez baitute sexualiterik", "Naturak erakusten du".

Jarrera moderatuxeagoak: "Gai hau delikatua da, irristakorra, beharrezko zuhurtsunarekin jokatu behar da", hau da, hobe gauzak ez nahastea, izatez gero txarla berriemaile bat eta kitto.

Beste batzuk, diskurtso progresista baten ondoren, sexualitatea birsorkuntzarekin parekatzen dute.

Batzu-batzuk, metodologiarekin bat etorri ez eta aspektu tekniko edota biologikoetara mugatzen dira: "Badator mediku bat". Edo sexualitatearen alde negatiboak azpimarratzen dituzte: "Sexu-transmisiozko gaisotasunak, haurdunaldi ez desiratuak, bortxaketa bera, etab.

Sexu-heziketaren egokitasuna planteiatzea jarrera oker batetik abiatzea da, jaiotzen denetik hezitzen bait da sexualki gizakia, kontzienteki batzutan gura-


soengandik, oharkabean bestetan; ahozko komunikazioaren bidez batzutan eta ez-ahozkoaren bidez bestetan. Gaztea inguruak hezitzen ohi du, lagunek batez ere. Arazoa da zein heziketa moeta nahi dugun: Isiltasunarena, tabuarena, beldur-rrarena, e.a.? Heziketaren arduadunak ezin dezakete begiak itxita segi.

Gazteek informazioa bilatzen dute, lagunen bitartez bereziki eta liburuen bidez bigarrenik. Askotan biologian oinarritutako eta akademikoegia den informazio bat eskaintzen zaie, ez da emozioez hitz egiten, sentimentuez: segurtasuneza, arbuioaren beldurra, nazka, lotsa, frustrazioa, zeloak, e.a. sortzen dira.

Hutsune hauek, gehienetan, estereotipo eta sexualitatearekin zerikusirik ez duten mitoen bidez betetzen dira. Guzti honen eraginez ditugu bere buruaz segur ez dauden pertsonak, sexualitatearekin zer egin jakin ez eta euren sexualitatearen aburu lotsagarria, higuinagarria, arrisku-tsua gordetzen dutenak.

Informaziorik ez daukan gaztea, gaizki informaturik dagoena, sexu-harreman bat izan dezakeelaren kontziente ez dena, egoera horretara eskemarik gabe eta mitoz eta topikoz josia iristeko arriskuan dago: "lehenengo aldian ez da ezer gertatzen", "helburua penetrazioa izango da", "gertatu beharrekoa gertatuko da", e.a.


Antisorgailua erabiltzea sexu-transmisiozko gaisotasunak eta haurdunaldi ez desiratuak eragozteko metodo efikaza eta



egokia bada ere, sexuduna denaren kontziente egiten du gizakia. Elkarren masturbazioa iharduera egokia bezala bultzatu beharko litzateke halaber, eta, are gehiago penetrazioak gazte orori sortzen dizkion baino antsia eta larridura gutxiagorekin.

Bukatzeko, ez da nahikoa IHES-a eta haurdunaldi ez-desiratuak eragozteko informazioa, emozioen heziketa ere behar da erabakiak hartzeko ahalmena duten pertsonak izan ditzagun.

M.K. Urteaga eta J.K. Kerejeta  
(Sexologoak) ZERRAILA  
(Sexu Informazio eta Orientaziorako  
Goierriko Zerbitzua)  
Egokitzaile: GOIERRITARRA





**Goierriko Irakaskuntza Institutuetako BBB (BUP) mailako ikasle hainbatek egin dizkigun galdera sorta polita:**

--Zergatik dago okerrago ikusia nesken kanpaia jotzea (masturbatzea)?

--Egia da "roilo" batetan mutilaren helburua beti penetrazioa dela?

--Mutilek, badute kontutan neskek nahi dutena?

--Lehenengo aldia: atsegina da, lotsa ematen du, mina sentitzen da?

--Penetratzen gabe gozamen berdina senti daiteke?

--Emakumearen eta gizonaren orgasmoak berdinak dira?

--Nortzuk jotzen dute kanpaia gehiago, emakumezkoak ala gizonezkoak?

--Zergatik adierazten dute mutilek gogo gehiago?

--Zenbateraino masturba daiteke pertsona bat arriskutsua izan gabe?

--Kanpaia jotzea (edo, idiarena jotzea) ona ala txarra da?

--Zergatik dago zigortuak direnean be-roago jartzen den jendea?

--Nolakoa da emakumearen orgasmoa?

--Zergatik emakumezkoek ez dituzte beren gogoak adierazten? Ez dituzte ala?

--Zein da larrua jotzeko modurik (posturarik) hoberena?

--Neskek gehiago "aguantatzen" dute?

--Birjinak izateari uzten diote neskek masturbatuz gero?

--Nola masturbatzen dira neskek?

--Himen-a kanpaia jotzearekin puska daiteke?

--Nola egiten da maitasuna?, ez naiz koitoaz bakarrik ari.

--Mutil batek muxuka edo laztandu dezake neska bat instintoz soilik, neska horretaz gustatu gabe?

--Sexu-harreman batetan orgasmo bat baino gehiago eduki daiteke?

--Denborak badu sexu-asetzearekin, satisfakzioarekin zerikusirik?

--Mutilak, korritu (semena isuri) eta gero, neska itxoin behar du?

--Zer da inpotentzia?

--Zenbat denbora irauten du sexu-harreman batek?

--Kanpaia jo eta gero, sor daiteke isurketa azkarra edo "eyaculacion precoz" delakoa?

--Zeintzu dira zonalde erogenoak?

--Zer gerta liteke koitoan emakumeak hilekoa balu?

--Emakumezkoek gizonezkoek adina gozamen sentitzen dute masturbatzean?

--Txarra al da sexualitatearentzat filma pornografikoak ikustea?

--Egia al da gizonezkoa aktibogoa dela maitasuna egiterakoan?

--Ohekidea maitatu gabe gozamina senti daiteke?

--Larrua jotzen duzun lehen aldian, lehen ezagutzen ez zenituen gauzak ezagutzen dituzu?

--Beste sexuko norbaitekin larrua jotzen baduzu, zure bizitza alda daiteke?

--(Neska batek): Zergatik sexu-harreman bat izan ondoren hurrengo goizean sentitzen zara hain gaizki, zikina bezala eta hortzikarekin? Lehenengo aldian batez ere, gau bakar bateko harremanaz ari naiz.

--Zer da koitoa, zer orgia, orgasmoa, klitoris, fimosia?

--Txarra da astean bost bat aldiz masturbatzea? Indarrak galtzen dira?

--Egia al da emakumezkoak sexu-harreman baten ondoren asegabe geratzen direla?

--Lehenengo aldiaren ondoren, nola sentitzen zara?

--Maitasuna egitea, astean zenbat aldiz da normala?

--Zer egiten duzu tanpax-a sartzea lortzen ez baduzu?

--Mutil batekin harremanak izan eta moztu ondoren: orain ezin dut pentsatu beste mutil batekin harremanak izan ditzazkedanik eta nazkagatik dela uste dut. Normala ote da hau?

--Zein da majinaren neurria?

--Normala al da bi urte ondoren hileroko irregularrak izatea?

--Orgasmoa nor suertatzen da, zergatik ematen da, normalki klitorisean gertatzen da?

--Zer da "misionaria" ren postura?

--Higienikoa da 69-a?

--Emakumezkoak eta gizonezkoak arrazoï desberdinengatik eszitatzen dira. Zeintzu dira hauek?

--Antihigienikoa da mutil bati "berrea" xurgatzea edo berak "zurea"?

--Zergatik gizonak emakumeak baino lehenago lortzen dute orgasmoa?

--Zergatik emakume batzuk lehen esperientzian mina sentitzen dute eta beste

batzuk berri ez? Zergatik aldeak?

--Gogorik gabe edo bortizki larru-jotzeak, badu eraginik fetoaren eratzean? Bortxaketa kasu batean, adibidez?

--Normala da 17 edo 18 urte izatea eta oraindik ez kanpairik jotzea?

--Maitasuna egitean, emakumeek orgasmora iristeko arazoak izaten dituztela esaten da. Egia da? Zergatik?

--Himena puskatzea asko kostatzen da?

--Zergatik izkututzen da hainbeste klitoris?

--Zer dira gaueko ixurketak?

--Neska baten mugitzeko erak mutil bat eszitatuta dezakete?

--Nola jakiten da lehen sexu esperientzia izan nahi duzula?

--Nerbioek badute eraginik lehen esperientzi sexualean?

--Nola konpontzen da eiakulazio azkarreri hori?

--Zer da "frigida" izatea?

--Orgasmoa plazerraren gailurra da, beti iristen da, zerk eragotzi dezake iristea?

--Zergatik, mutil batekin harreman bat izatean, neskek ezer ez sentitze hori?

--Zergatik egiten du min hilerokoak?

--Hilerokoa duzunean, maitasuna egin dezakezu?

--Nola ligatzen da?

--Zein da harremanak izateko adin egokia?

--Uzkitiko penetrazioak mina egiten duen jakin nahi nuke, edo plazerra, bata ala bestea, biak edo bat ere ez.

--Zer egitea gustatzen zaie gehien emakumei?

--Nola eman daiteke plazerrik handiena?

--Zergatik ez zaie gustatzen neskei filma pornoak?

--Koitoan, zerikusi handia dauka gizona ala emakumea goian edo behean egoiteak?

--Zer esango zenioke sexualitateari belur dion norbaiti?

--Noiz gera daiteke haurdun neska bat?

--Antisorgailuak?

--Zer egin behar da lehen sexu-harremanean?

--Ezer jakin gabe egiten den lehenengo aldian, errendi daiteke?

--Lehen aldian oso azkar isurtzen duzu (korritzen zara)?





## BIZI TESTAMENTUA

Nire sendiari, nire sendagileari, nire apaizari, nire notarioari:

Niri eman behar dizkidaten mediku-laguntzei buruz, niri gogoia adierazteko gauza ez naizen unea irixten bazait, Aitormen hau nire benetako nahia agerpen bezala hartua izan dadila nahi dut eta eskatzen dut; ezaguera, erantzukizun eta askatasun osoarekin egina eta testamentu bat bezala errespetatu behar dena.

Mundu honetako bizitza Jaungoikoaren dohain eta bedeinkapen jotzen ditut, baina ez goieneko edo erabateko balioa bezala. Badakit heriotza ezinbestekoa dela eta nire lurreko bizitzari amaiera ematen diola, baina nire fedean sinesten dut, bukatzen ez den bizitzarako —Jainkoaren ondoan— bidea irekitzen didala.

Horregatik, nik, idatzi hau izenpetzen dudanez, honek hau eskatzen dut: nire gaixotasunagatik, senda ezinezko egoera larrian aurkituko banintz, ez nazatela bizirik euki neurritz kanpoko edo ohi ez bezalako sendakuntzen bitartez; ez dezaidatela ezarri eutanasia eraginkorra-aktiboa, eta ez dezaidatela luzatu nire heriotz-ordua gehiegikeriaz eta arrazoirik gabe; oinaze-minak arintzeko egokia litekeena eman dezaidatela.

Baita ere laguntza eskatzen dut, neure heriotza kristaukiro eta gizatasunez onar dezadan. Nire bizitzaren bukaera honetarako pakean, nire familiako eta adixkideen artean eta nire kristau-sinismenaren laguntzarekin prestatu nahi nuke neure burua.

Gauzak ondo pentsatu eta gero izenpetzen dut Aitormen hau. Eta ni zainduko nauzutenoi, nire gogoia errespetatu dezazuela, eskatzen dizuet. Badakit erantzukizun garrantzitsu eta zail bat eskatzen dizuedala. Nire sentipenak zuekin batera bizitzeko eta inolako erru-kezkak zuengandik uxatzeko, idatzi eta izenpetu dut, hain zuzen, Aitormen hau.

Izenpea.

Noiz

## HUMORE BELTZA

### HAMALAU ESTAZIOAK

Latinez Via Crucis zena, euskaraz gurutzebi-dea edo kalbarioak edo hamalau estazioak esaten zen. Gabiriatik tren pasatzen da eta garai hartan apeadero bat egin nahirik zebiltzan. Zentegiko Benito hiltzen zegoen. Apeza ekarri zioten eta konfesatu ondoren, penitentziatzat hamalau estazioak egiteko agindu. Benitok orduan esan zuen:

—Nola egingo ditut, bada, nik hamalau estazio, denon artean apeadero bat egin ezinik bagabil-tza?

Antonio Beasaingo klinikan zegoen. Eguerdiko ordu batean orrazi bat eskatu zuen. Erizainak (enfermerak) esan zion: «Orain ez daukatz orrazi-rik». Antoniok esan zion: «Nik badaukat, ba, etxean arbola bat, orraziak ematen dituen». Erizainak: «Handik ekarri beharko duzu orduan». Antoniok: «Bai, baina oraindik heltzeko daude».



## EZKIOKO ETA SEGURAKO ITSUAK



«Ezkioko itsu honek mutilzaharra izan behar zuen. Soinua jo eta bertsoan egin... hala ateratzen zuen bizimodua. Eztaietara eta abar deitzen omen zuten... Kantari onaren fama zuen...»

«Segurako itsua, 1824. urtean jaioa, Joakin Luzuriaga deitzen zen. Kuban soldadu zebilela itsutu eta gero, Juana Manuela bere andrearekin herriz herri, jai egunetan, meza bukaeran, han aurkituko ziren eliz aurrean elkarri egundoko bertsoak jaurtitzen, eta entzuleei farre eragiten...»



### Ezkiokoak:

-1-

Orain bertso berriak  
behar ditut ipini.  
Ezkioko itxuak  
Segurakoari;  
hartarako motiboak  
eman dizkit neuri.  
zergatik bota duan  
asko panparreri.

### Segurakoak:

-2-

Ezkioko itxua  
nere amigoa,  
laister izango dezu  
horren kanbioa;  
alferik izan zera  
koplari pijoa,  
ia zure bentea  
galduaz dijoa.

### Ezkiokoak:

-3-

Galduaz badijoa  
neronen bentea;  
neretzat kalte baiño  
zure mesedea;  
aspaldian badezu  
nahiko erronkea,  
baiña ez da haundia  
dezun bentajea.

### Segurakoak:


-4-

Koplari abilla da  
Ezkioko itxue,  
bere gazte denboran  
askoren maisue;  
boza bajatu zaio  
estutu petxue,  
hargatik askok bentaja  
hartutzen dizue.

### Ezkiokoak:

-5-

Segurako itxue  
soldadu zaharra,  
ez diak ematen  
esperantza txarra;  
hik petxu ona daukek  
boza're ederra,  
aurki izan dezakek  
guztien beharra.





**JUAN JOSE LAPITZEN BIDAIA**

## Mutiloa eta Lierniko Andra Mari

**S**egura herrira hurbiltzeko asmoa dutenei bidaia paseotxo batez Ormaiztegitik hasia proposatzen diet, Gabirira doan errepidea hartuaz, zeinak Lierni gaineko izen beradun birjina gurtzen den ermitara bait garamatzen, jaio berrientzat osasun eta emakumezko antzuentzat ugalmen eske joan ohi zaiona. Erromes tenplu txiki honen ondoan bi osatu altxatu ziren garai batean, gaur egun «Patxi» eta «Mugika» jatetxeak direnak. Azken honetan, orain ez denbora asko, ahaztu ezineko zizka-

mizkak prejitauak eta «menieure» mihiarrain preskoa hartu eta gozatu nituen. Ondo prestatua guztia, eta gainena, taimana handikoa azken hori. Horretaz gain, mamiak ere garai ezin ego kiagoan bait ziren, proposatu bazkariaren gehigarri modura hartzea deliberratu nuen.

Behin bazkalduta inguruan bueltatxo bat ematerik dago eta bertatik ikus daitezkeen paisaiak mirestu. Ondoren, Mutiloara jeitsirik, herriko plaza xelebrea eta San Miguel parrokiako erre-

taula barrokoan parada egin. Mutiloatik Segurara, sasoi batean Gipuzkoako herri garrantzitsuenetako izandako horretako hirigune ikusgarria eza gutzeko.



**MUGIKA**

**JATETXEA**

Liernia 20214 MUTILOA  
Tfno 80 16 99

## GURPIL BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51  
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03  
20200 BEASAIN

Automobilaren errekanbio elektrikoak

**GOURRE**

Ampuero, 1  
Telfs. 88 85 50 - 88 85 54  
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Ardo, patar eta txanpanak  
Salmenta eta banaketak

**J. UGALDE**

Edariak

Nueva, 3 - Tlf.: 88 12 26 - ORDIZIA

UTOESKOL  
**ARALAR**

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240.ORDIZIA (Gipuzkoa)



